

EUSKAL HERRIARI ZUZENDURIKO PROPOSAMEN PERTSONALA ESTRATEGIA ETA EKINTZA-PLAN BATERAKO.

Felix Rodrigo Mora

Heltze-egoera egokian dugu Euskal Herria estrategia orokor baterantz jauzi egiteko zeinak barneraturik edukiko lukeen erabateko askatasuneranzko ekinbidea. Barne-hutsunea betetzeko garaia iritsi da. Indar askatze kolektibo zein indibidualei bidea irekiko dion ilusiozko egitasmo baten beharrean aurkitzen da euskal gizartea bere baitan duen nahasmen, beheraldi kolektibo eta mobilizazio-falta egoera dela-eta. Arrazoi horrexegatik hain zuzen, ekimen eta zereginei buruzko proposamen bat egingo dut idatzi honen azken atalean.

Honako proposamena aurkeztera behartuta nagoelakoan aurkitzen naiz arlo hau aztertzen urteak emanda eta Euskal Herrira hainbat bisitaldi egin eta gero (ia beti gonbidatuta), batez ere hain abegi onez hartu nauten horiei begira.

Aldez aurretik, azalpen bat egitera behartuta nago.

Aspaldidanik dut Euskal Herriarekiko interesa. Besteren artean, Egin-eko kolaboratzaile izan nintzen bere azken aroan dozenaka iritzi-artikulu argitaratuz bertan eta beste hainbeste "punto y hora de Euskal Herria" aldizkarian. Horietako batzuk, adiskidetasunetik idatziak beti ere, ENAM-en strategiaren bidez kotasunari buruzkoak ziren zeinak arrazoi zutelarik gerora ikusi ahal izan dugunez. Ez nuen ordea inoren babesik jaso alor honetan...

2004-tik aurrera heldu nion berriro harreman horri AHT-en aurkako asanbladaren eskutik, hainbat hitzaldi¹ emanez eta hainbat ekintzetan (Lezo etab.) parte hartuz Ludd-en Lagunak elkarteko kide nintzenean. 2005an Nabarralderen Haria aldizkariak "Herria eta Karlismoa. Argipen entsegua" argitaratu zidan, ondoren "Natura, baserri-mundua eta zibilizazioa" liburuari gehitu niona. Bere VI. atala, "Udalbatza irekia eta baserri-mundua" titulua daramana, Euskal Herria eta batzarrea gogoan nituela izan zen pentsatua eta idatzia, berau izanik liburuaren osagai funtsezkoena, eta, era berean, zentzua ematen diona. Ezin izango nukeen berau idatzi Arabako Udalbatza Elkartearen laguntzarik gabe, zeinarekin eztabaida emankorra izan nuen Urbinan (Araba) 2007ko urtarrilean.

Nire Euskal Herriarekiko harremana beste aro batean sartzen da 2011ko urrian, hots, Jasone Mitxeltoaren Usurbilen ospaturiko Auzolan izeneko mugimenduaren topaketan parte hartzeko gonbitea egiten didanean. Nik ez nuen bere berririk izan aurretik, berak bazuen, ordea, "Natura, baserri-mundua eta zibilizazioa"-ren berri; geroztik mugimenduari lotuta geratu nintzaion, 2012ko irailean Altsasuko jardunaldietan hizlari bezala parte hartu nuelarik, "burujabetza politikoa eta batzarrea" gaia landuz. Gernikan ere eman nituen hainbat hitzaldi. Ondoren, Zuzenbide Pirenaikoari buruzko jardunaldia burutu zen 2016ko maiatzean, Nabarralde eta Martin Ttipiak argitara eman zutelarik horren txostena urte bete beranduago; eta ostean Elgoibarko jardunaldia 2017ko irailean, nahiz eta Euskararen Jatorriarekin ekimenak burutu nituen aurretik ere, Irurtzunen hizkuntzari buruz egin zena nabarmenduko nukeelarik. Lehenago, 2016ko apirilean, Espainiako II. Errepublikari buruzko nire ikerlana plazaratu zen, iragan mendeko 30. hamarkadako euskal gizarteari buruz hitz egiten duelarik bere azken atalean. Nire arte errromanikoari buruzko liburua, 2013an emana argitara, Tuesta-ko (Araba)

eliza darama azalean, XIII. mendekoa beratu. Era berean, 1140 aldera eraikitako Artaiz-ko (Nafarroa) San Martin elizari buruzko gogoeta bat dut nire blogean.

Zergatik dut nik, gaztelarra izanda, horrenbeste aditasun Euskal Herriarekiko? Batetik, Gaztela Euskal Herria delako bere jatorrian, antzinako Kantabriaren oinordekoa izateaz gain; eta horrek "aitaren etxera" itzultzea suposatuko luke nire kasuan. Bigarrenaz, askatasun politikotik antolaturiko gizarte propio baten zantzurik nabarmenenak dituelako euskal jendarteak, batez ere Baskongaden kasuan. Azkenik, herri jabegoak ondoen irauten duen lekua delako Euskal Herria, oraindik ere Nafarroako lurren % 43a herri-jabegoari dagokiolarik.

Horren zergatiak erreparatzerakoan, bi aipatuko genituzke guztien gaineratik: 1) V. mendeko goi erdi aroko iraultzaren ondorioak, are ohargarriagoak berezkoak izanagatik, eta 2) euskara ez dela sekula Estatu-hizkuntza izan XX. mendean oso aurrera egin arte; alegia, herriaren hizkuntza izan dela, Gaztelan baino gehiago iraun duelarik bere propio den mundu-ikuspegi herrikoiak. Gaztelan, non gaztelania Estatu-hizkuntza den XIII. mende amaieratik, indar handiagoz sartzen dira ideia disolbatzaile eta okerrak herriaren baitan, beratu galbideratuz akulturazioaren bidez. Ezbairik gabe, Euskal Herria ere nahiko kulturgabetua dago egun, baina inolaz ere Gaztela adina.

Nire proposamenaren bidean, euskal mundu ikuskera izan dadin, ideia arrotzen lekuan, Euskal Herriarentzako egitasmo politiko, ekonomiko eta kultural baten oinarri, Artaizko Erdi Aroko San Martin elizan zizelkaturiko hiru aurpegiko buru paregabea hartzen dut bide-erakusle, zeinak iragana, oraina eta etorkizuna elkartzan dituen batasun holistiko batean; jakintza osotasuna aditzera emanaz, izan zena, egun dena eta etorkizunean izango dena hautetsiko duena.

Baina, zer dela-eta nire jakin-mina euskal iraganarekiko? Oker dabil norbaitek uste badu nire historia-zaletasun, etnografia-grina edo museoekiko itsumenaren ondorio dela. Honakoa da 2017ko irailaren 23an Elgoibarren burutu nuen hitzaldiaren izenburua: "Euskal Herria bi garaitan: bagauden iraultza eta XXI. mendea". Badira jada 20 urte ondorioztatu nuela XIX. mendeko langile-ideologiak, marxismoa batez ere, ez zirela egokiak gizarte iraultza bat gidatu, kapitalismoarekin akabatu eta gizarte berri bat eratzeke. Ondorio hau izan zen gizarte aldaketarako eredu eraginkorrek iraganean bilatzera bultzatu ninduen, XIX. mendeko langile mugimenduaren porrotak sistema zapaltzaile honetan murgiltzeko egoerara eraman ez gintzan, aldaketarako proposamen baten faltan.

Bereziki, herri-jabegoa eta asanblada-bidezko ordena ezagutu nahi nituen, hots, autogestionatua eta askea politikoki, mende luzez iraunkorra eta eraginkorra izana; jakiteko zein mundu-ikuskera eta axiologiaz, zein printzipio eta balorez, erdietsi zen. Neure buruari galdetzen nion: askatasun politikoa gauzatuz, egokia izango ote litzateke batzar irekia egungoa bezalako gizarte bat egituratzeko? Gai izango ote litzateke herri-jabegoa komunitatearen esku zilegitzeko XXI. mendeko multinazional, finantzari, industrial eta zerbitzuen enpresa handia? Zuzenetsiko al luke auzolanak soldatapeko lan erdi esklaboarekin amaitzea? Zuzenbide pirenaiotik sortutako ohiturazko zuzenbideak onetsiko al luke gure garai honetara egokituriko arau juridikorik, egungo Zuzenbide Estatu baliogabetuz? Polizia eta gudarosteen ordeztu, bideragarri al lirateke kontzeju-miliziak?...

Iraultza handi guztiek bilatzen dituzte beraien ereduak iraganean, baino tamalez Frantziar Iraultza da mundu progresistako betiko moldeak (edo 1917ko Errusiakoa, alegia, bere klon oraindik eta totalitarioagoa, hiper-kapitalista eta mega-estatala izaki), zinezko anti-iraultza egia esateko, iparraldeko euskaldunen aurkako genozidioa burutu zuelarik gainera. Beste eredu bat behar genuen. Are eta gehiago egun, II. mundu gerraren amaieratik Mendebaldean agindu

duen aurrerazetasuna desagiten ari denean; bere oinordeko errebolta omen den ezkertiar ideologia bezala, egungo statu quo-ari hobekien egokitzeko eta bertan mailaz igotzeko, erdi mailako klasearen politika izan dena.

Norberto Bobbiok, azken mende-erdiko politologo tematsuenak, diktadura eta demokraziaren arteko desberdintze bat egiten du bere “politikako Teoria orokorra” liburuan, 1999an, demokrazia bi motatan banatuz: ordezkartzakoa eta zuzena. Berak dionez, erregimen parlamentarioa litzateke lehenengoa, demokraziarekin zerikusirik ez duelarik; eta, bigarrena, Atenasen gauzatu soilik, ustezko batzarren gobernu litzateke nahiz eta, egiari zor, gezurrezko autogobernu-modu bat izan zen. Bobbio-ri ez zaio burutik pasa ere egiten badela batzarren bidez zuzendutako gizarte bat, berau hemen dagoelarik, eta ez orain dela 2500 urteko Grezian. Are gehiago, oraindik bizirik dirau gobernu horrek, batzar moduan, nahiz eta jada nahiko hondatua den.

Penintsulako hainbat herrialdetan ematen da batzarren bidezko herri-gobernuen sistema. Gaztelan badira Hiribildu eta Herrialde erkidegoak, dozenaka herritxok azpitik gora eraturako gobernu komun batean bildurik, hiribildu bat delarik buru eta bi mailako burujabetza dutelarik: tokikoa edo herrikoa alde batetik, eta eskualdekoa, bestetik, nahiz eta zilegi litzatekeen hastapenetan hirugarren bat egotea ere Gaztela guztiarentzat, hots, Gaztelako gortetan, baina ez dugu hori baieztatzen agiri fidagarriarik. Galizian garrantzi handia du *concello aberto* delakoak nazio horri buruz idatzitako liburuan azaltzen dutan moduan, baina maila globala falta da, hau da, Galizia osoari dagokiona, eta nik dakidala ez dugu horren arrastorik gaur egun. Berdin gertatzen da Katalunian, bere historia askoz gutxiago ezagutzen dutan arren. Hala, inon ez da Euskal Herrian bezain egoki gorde iragan asanbleario, iraultzaile eta herrikoien zantzurik, Baskongadetan gehiago Nafarroan baino arlo politikoari² dagokionez. Argi ikusten dira herri burujabetzaren hiru mailak nahiz eta denborak eta estatu-aparatuen presioak desitxuratu egin dituen: tokikoa, eskualdekoa eta herrialdekoa. Laugarren maila baten faltan gabiltza, dena den, zeinak Euskal Herri guztia batuko lukeen Estaturik gabeko gobernu-sistema batean, eta derrigorrez existitu behar izan zuen Goi Erdi Aroan, V.tik X.era gutxi gora behera, izan ere, iturburu nahikorik ez baitugu behin betikotasun hori xehetasunez zehazteko, baina honek ez du kontu horren mamia dutan jartzen.

Herriaren autogobernu-erregimen bat deskribatu eta proposatu nuen nire “La democracia y el triunfo del Estado” liburuan, 2010, zeinak ordena juridiko-politiko bat izango zuen batzar burujabez osaturiko sarean funtsatua, herri mailatik herrialde osoko mailara goratuko zelarik. Euskal bidean oinarritzen nintzen, Araban eta Bizkaian bereziki, berauek dituztako ezagunenak, nahiz eta ezin zalantzan jarri Gipuzkoan ere hala zenik (denik). Liburu horretan ez ditut herrialde hauek aipatzen (edo hori uste dut), bide baliagarria baita hori munduko herri guztientzat, unibertsala horrenbestez, eta sen onean du bere jatorria; zeren ordena politiko aske bati buruz hausnartu behar badugu, edonongoa izanda ere, euskaldunaren antzekoa izan beharko lukeela ondorioztatu beharko genuke. Eredu ederra da Bizkaia, bere zuhaitz eta sistema juridiko-politikoarekin, aparta, adjektiboa alde batera utzi eta substantiborantz jotzen badugu, edo sakonera handiagorantz, beharbada. Etorkizuneko eredu-modura hartzeko helburuaz, xehetasun osoz aztertu beharko dugu bere herri-gaundiko erregimen politikoa; baina, lehenik, boterearen aparatuek eta ondoren parlamentarismoak Bizkaiko hastapeneko ordena politikoari ezarritako errauskin kaltegarriak alde batera uzten jakin behar dugu. Behin hona iritsita, nire ustetan argi geratu da etorkizuna dutela helburu historiari buruzko nire ikerketek, iragana bera baino maila handiagoan, alegia, egiteko dagoen herri iraultza du xede izan zenaren oroimenaren (oso polita, baina oroimen hutsa) bertsio hutsean geratu baino. Bukatutzat ematen dut gaur eguneko historiaren azterketari egin diodan ekarpena, beraz orainean eta etorkizunean jarriko dut arreta hemendik aurrera. Bukatzeko, aipatu nahiko nuke badudala oraindik ere euskaldunon burujabetasunaren aldeko borroka gaztelarrentzat eredu

eta pizgarri izango denaren itxaropen izpirik, Gaztela zeharo ahulduta eta desmobilizatuta dagoela ikusirik.

Globalizazioa edo mundializazioa, datorkigun erronka

1986tik dago Espainiar Estatu Europar Batasunaren baitan, zeina Alemaniaren hegemoniapeko 28 Estatu osatzen duten, elkarte ez-parekide batean, eta ingelesa delarik (alemana beharrez, erne) bertoko lan-hizkuntza, alegia, European indarrean dagoen Estatu/Estatuen erregimen tiranikoaren hizkuntza ofiziala. Europar Estatuaren bloke hori estuki dago lotua enpresa handi multinazionalarekiko, eta botere-egitura erraldoi hori da Europaren, eta, ondorioz, Euskal Herriaren mundializazio-eragile nagusia, politika eta ekonomia elkar fusionatzen dituelarik. Martxan jartzen ari dira, orain bertan, EBko Segurtasun eta Defentsa Politika Bateratua, zeinak armada europar bat eratuko duen hemendik urte gutxira 1,8 milioi soldaduk osatua, OTAN erakundea bigarren maila batean utziko duelarik. Bide batez, esan beharra dago tankerako armada batek beharrezko duela hizkuntza bateratu bat, ingelesa izan beharko duelarik halaber, eta horren adierazle da egun egiten den ingelesaren erabilpena espainiar ejertzitoan maniobra eta borroka-esparruko aginduen igorpen eta eraketan. Horrexegatik dago Europa inbasio linguistiko baten menpe momentu hauetan, hau da, ingeles endekatuaren edo ingeles berriaren menpean, zeina seguru izango dela etorkizuneko Estatu Europarreko hizkuntza ofizial eta derrigorrezkoa, baita “europar nazioarena” ere bere osotasunean. Horren baitan, egokia litzateke honakoa gogoraraztea, alegia, XIX. mendean militarismo liberal espainiarrak gaztelera ezagutzera behartu zituela gizon euskaldunak armada homogeneo, eraginkor eta konfiantzazkoago bat egite-asmotan, gehienbat derrigorrezko hezkuntza publikoaren (estatalaren) bitartez inposatu zelarik. Antzinaroan, aparatu militar erromatarren beharren ondorioz burutu zen latinizazioa. Era horretan, euskara ez ezik gaztelera bera ere oztupo bat bilakatu da antolaturiko botereentzat. Bada, oker dago XIX. mendeko Estatu-nazioaren irizpideetan errealitatea pentsatzen jarraitzen duena (nazio bat, Estatu bat), izan ere, Estatuaz gaindikoak dira egun martxan dauden botere-formak, herrialde eta nazioen gaindiko agente eta nagusitasun-gune izugarriak osatzen dituztelarik. Bada European beste potentziekin (gehienbat Txina eta Errusiarekin) lehiatzeko urgaineratu den botere erraldoi bat: Europar Batasuna. Botere honek aliantza konplexu bat mantentzen du AEBekin, eta, era berean, baditu menpeko beste aliatuak ere, islama delarik horietatik nagusiena.

Gure muturren aurrean ari da egituratzen “Europar nazioa”, eta ez dago tokirik aniztasun kultural, linguistiko eta identitariorako. Izan ere, Europa homogeneo bat da guzti horren helburua, 1812ko konstituzioarekin eta bere ondorengoekin hasiriko “nazio espainiarraren” egituratzearen prozesu berbera delarik hain zuzen ere, baina are eta suntsikorragoa. Egungo Espainia indarrez eraiki zen aurretikako entitate politiko lurraldekoien lepotik, zeinak bazuten oraindik ere subiranotasun-maila bat (Nafarroak, esateko, 1828an bildu zituen bere gorteak azkeneko aldiz), dozena bat bazirelarik Gaztela eta Aragoiar koroen menpe. Modu berean izaten ari da sustatua nolabaiteko “nazionalismo europar” bat, XIX. mendeko abertzaletasunak baino askoz ere okerragoa delarik negatiboa eta kulturaren aurkakoa delako funtsean, aurreko nazionalismoak desarmatzen baititu ezergatik ordezkatzeko, asko jota “baturiko Europa” batean oinarrituriko esaldi hutsal eta zehaztugabeengatik, non ez baitagoen tokirik horietan Grezia edo Erroma jatorri duen goi-mailako europar tradizio kulturalarentzako, eta are gutxiago herrien kultura herrikoiantzako. Finean, azken modernitatearen ondorio diren izaki hutsalek beteriko Europa bat nahi dute.

Hala, “nazio espainiarra” baino kaltegarriagoa izaten ari da (eta izango da) herrientzat aipaturiko “nazio europarra”, hain justu Europar Batasunaren indar finantzari, teknologiko,

funtzional, mediatiko, akademiko eta militar edo polizial handiagoa dela-eta espainiar Estatuarekin alderatuz. Zalantzarik gabe, genozidio linguistiko eta kultural bat gertatuko da guzti horretatik, baita genozidio etniko bat ere, Europako herrietako mundu-ikuspegi eta kulturarekin zer ikusirik ez duten immigrante-masa handi batez izaten ari baita ordezkaturia europar biztanleria autoktonoa une hauetan. Eta ez badago estrategiarik ez soilik erresistentziarako, baizik eta iraultza orokor baterako ere, Euskal Herriaren amaiera izango da giza komunitate bereizi gisa milaka urteko existentziaren ondoren.

Espainiar eta Frantziar Estatuak mende-luzez menperatu dute Euskal Herria, baina oraingo honetan horiek ere Europar batasunaren manupean daude, Alemaniaren menpeko botere-entitateak bilakatu direlarik era berean. 2017ko udazkeneko Kataluniako gertakariak argi adierazi duten moduan, jada ez dago Estatu berrientzako tokirik 28en Europan, eta horrexegatik errefusatzeko determinazioz kapitalismo multinazional espainiar/europarrak (katalana ez da existitzen, euskalduna are gutxiago) independentziaren aldeko, hots, Estatu propio bat ezartzearen aldeko edozein ekimen politiko, izan zinezko edo iruzurrezkoa. Egungo errealitate estrukturala dela-eta, europar herri zanpatuen askapena programa orokor baten parte izan behar du, zeinak helburu izango duen iraultza politikoa, soziala, ekonomikoa eta kulturala. Bide horretan, eragozpen bat dira entitate estatal bat sortu eta klase patronala mantentzearen alde dirauten independentista deiturikoak, edozein nazio zanpaturen baitan delarik ere, teoriarik defendatzen duten kausaren traidoreak bilakatzen direlarik objektiboki, errealitatea beraren izaera dela-eta. Horren adibide garbi bat da ERC Katalunian.

Guzti hori dela-eta ari dira disolbatzen herri europarrak Estatuaren Europan, eta era berean doaz elkarren artean fusionatzen elite agintariak, klase menperatzaile bakar bat eratzeko: finantzaria, enpresariala eta estatala aldi berean. Herri europar ezberdinek osatu dute orain arteko errealitatea, Europa bera guzti horien batura izan delarik, baina honakoa da hemendik aurrera existitu beharko duena botere antolatuen inperatiboaren ondorioz: herririk gabeko Europa bat, hots, nortasunik gabeko, kulturarik gabeko, deserroturiko eta uniformaturiko plebea. Beste hitzetan, lanerako indar gisa besterik balio ez duen giza talde otzan eta zitaldua, eguneko 10 ordu lan egiteko prest dagoena oinarrizkoaren truke, edozeri men egiten dion jendakila esaten zaion hari edo besteari bozkatzeko prest, eta txintik esan gabe ere geroz eta altuagoak izango diren zergak ordainduko dituen. Honakoa da hori lortzeko bidea: 1) herri europar guztiak errotik kulturagabetu, euren berezko bizimodua, bizi-ikuspegia eta kultura herrikoia zein eruditua ahaztu eta gorrotatu dezaten 2) Ingelesa, edo, hobe esanda, azpi-gizakientzako³ oinarrizko tresna hutsera murrizturiko ingeles endekatua ezarri hizkuntza berri eta unibertsal gisa, 3) ordezkapen etnikoa burutu, jaiotza-tasa autoktonoaren kolapsoaren bitartez, batetik, eta gehiegizko immigrazioaren fenomenoaren bitartez, bestetik, izan ere, kultur aniztasunak kulturaren galtzea esan nahi du sakonean, 4) Geroz eta boteretsuagoak diren botere-gune politiko, militar, polizial, akademiko eta ekonomikoak eratu, urtetik urtera geroz eta handiagoa izango den zerga-ordainketaren bitartez, zeinak ekonomia produktiboa itoko duen, 5) errealitate autonomo eta aski eraturia den gizabanakoa ergeldu, naturak berak emaniko giza izaerarik gabeko humanoide-mailara eraitsiaz, beregan itzaliko direlarik adimena, erabakimena, askatasuna edo kolektibotasunarekiko maitasuna.

Hizkuntza gisako giza esperientzia gutxi ahalduntzen dituzte gizakiaren gaitasun intelektual orokorrak. Besteren artean, arrazoi horrexegatik dago martxan europar hizkuntzen suntsiketa. Ingeles endekatua Europako Estatuaren Estatuaren hizkuntza ofiziala bilakatu delarik, botere antolatuak errealitate egingo du aipaturiko azpi-gizatasuna bi edo hiru belaunalditan, eta horixe du beharrezko bere helburu estrategikoa eskuratzeko: mundu-mailako lehen potentzia bilakatzea beste behin ere, izan ere, galdu egin zuen posizio hura II. mundu gerraz geroztik eta potentzia berrien mehatxupean aurkitzen da egun. Hizkuntza oro da komunikaziorako tresna bat eta mundu-ikuspegi bat bere baitan, baina bigarren gauza ezabatzen bada mintzaira hori

testuingurutik ateraz, hizkuntza bera elbarri geratuko da eta ez da baliagarria izango gizakiaren goi-ahalmenak garatzeko. Beste prozedurekin batera, modu horretan ari dira sortzen soldatapeko esklabotasunerako eta menpekotasun politikorako egokia den azpi-gizatasun hori sortzen.

Ondorioz, Europako herri bakoitzak bere izatearen berrespina burutu beharko du bere baitan bilatuz existentzia berri baterako arrazoiak, eraberriturik eta berpizturik, bera den modukoa izatera ausartzeko beste behin ere eta XXI. mendera egokitzuz bere berezko idiosinkrasia, printzipio, bizimodu eta balioak. Hori izan behar du globalizazioaren aurkako erresistentziaren oinarria. Herrien Europak soilik modu horretan garaitu ahalko du Estatuaren eta makro-enpresa multinazionalen Europa. Unibertsalista izan beharko da Europa hori bokazio eta behar-aldetik, gizadi osoaren aldekoa alegia, XIX. mendeko nazionalismo burges, txobinista eta xenofobo horretatik urrun.

Utopia erakargarri baten modura zabaltzen da globalismo hori gazte-jendean. Esan ohi da herri eta pertsonen arteko hesiak gaindituko dituela ingelesaren nagusitasun unibertsalak, mundu-mailako komunikazioa ahalbideratuz. Teknologia, aldiz, arazo guztiak konponduko ditu bakea, arrakasta eta oparotasun materialaren garai berri bat ekarriz. Estatuak, bestetik, jendea zaintzeaz arduratuko da bere Ongizate Estatuaren forman, eta enpresa handia, azkenik, ahalegin pertsonal eta laboralerako gune erakargarria izango da. Mundu osoarekin konektatu ahalko da gizabanako bakoitza, muga zein frontierarik gabe libreki mugituz lana, turismoa edo emigrazioaren bitartez. Beren kabuz eraikitako kultura herrikoi zaharrak, miseriaz eta atzerapenez pozoituak, ezagutza akademikoagatik (35 urtetik beherakoen heren baten esku gaur egun) eta industria kulturalaren eduki ideologikoengatik izango dira ordezkatuak. Gauzak horrela, errepikarazten digute aurreranzkoa eta geroz eta azeleratuagoa dela gizadiaren martxa. Hala, bidean geratuko dira garai bateko kultura, hizkuntza, bizimodu zaharkituak, balore baliogabe eta akaso kaltegarriak... nahitaez izan behar du eraikia mende honetan globalizaturiko Europa hori, hots, "europar nazioa", hamarkada batzuen buruan. Zazpi arlotan koka dezakegu, oro har, globalizazioaren ahulgunea, a) agintzen duenaren eta betetzen duenaren artean dagoen alde ikaragarria; b) bere mantenuaren kostu ekonomikoa, botere osoa biltzen duen sistema erraldoia den heinean naturaren aurkako izaera artifizialaz determinaturikoa; c) gizakia endekapenera bultzaraztea izaki hutsalean bilakaraziz eta, ondorioz, edozertarako ezgauza, baita lan ekoizkorretarako ere; d) gaitz fisiko eta psikikoen gorakada lan eta bizi-baldintza globalizatuak direla-eta: obesitatea, diabetesa, bakardadea, depresioa, alkoholismoa, neurosia eta abar, sekulako gastu ekonomika eragiten dutelarik gainera; e) demografiaren hondoratzea, aurki mundu-mailakoa izango dena egun europarra bada ere, f) nekazaritzaren gainbehera, nekazaritza-lurzoruen suntsiketa, ur edangarriaren urritzea, hirien degradazioa eta eraldaketa klimatikoa, g) txirotasun materiala, soldata hutsalak, enpresarekiko morroi-gisa azpiratzea eta lan-ordu amaigabeak, zeina egun zinezko errealitatea den gazteriarentzat. Esan daiteke gizatasuna bera (eta natura osoa ere) dela altxatzen dena elite zital eta jainkotuen diktadura ikaragarriaren aurka, hori delarik, azken batean, globalizazioa.

Era horretan, Estatu/enpresa handia oinarri duen sistemaren fase globalizatzailearen aurkako oposizioak badu aukerarik arrakastaz borrokatu eta garaipena eskuratzeko. Analisi on bat eta estrategia egoki bat osatzea da orretarako baldintza. Globalizazio kapitalista horren aurkaritzak ezin du erresistentzia erromantiko edo lekuko baten itxura hartu nire irizpidez, baizik eta garaipena helburu duen ekintzan kokatu behar da, antolaturiko boterearen proiektu estrategikoak zapuztuko dituen iraultza bat bilatuz.

Belaunaldien arteko haustura da globalizazioaren ideologiaren ondorioetako bat: maila altu batean onartzen dute hori 35 urtetik beherakoek, irakasten zaien gauza bakarra baita izan ere,

eta ez dute euren nagusien bizimodua jarraitu nahi nahiz eta ezinbestekoa den belaunaldi bakoitzeko eguneraketa. Euskal Herrian ere jazotzen da fenomeno hori, eta ez da soilik halabeharrezko herri batasunaren haustura-adierazlea, baita masen akulturazio-prozesu beldurgarri batena ere zeinak, ez bada lehengoratu pare bat edo asko jota hiru belaunalditan, euskalduntasunarekin bukatuko duen, hots, euskal bizimodu, balio, mundu-ikuspegi, hizkuntza eta idiosinkrasiarekin.

Baina Europa globalak gazteriarri eskaintzen dizkion bizi-baldintzen errealitate gorria dago globalizazioaren ideologiaren parean, zeina den anglosaxoia, tekno-sutsua, kultura-gabekoa, monetaturikoa, otzana, pertsonalitaterik gabekoa, azpi-gizatarra, ekonomizista, hedonista, deserrotua eta iruzurtia ere. Izate zehatzaren birrintzaile den hezkuntza, lan-egun amaigabeak edo lan egonkor bat aurkitzeko ezintasuna, gurasoek jasotzen zutenaren erdia balio duten soldatak, arrapalazko txirotasuna, aita edo ama izateko ezinezkotasuna, bakardadea, anomia, gehiegizko presioa, zurien aurkako arrazakeria, hiritar bizitza deserrotua... finean, gaixoturiko ordena batean bizi den gorputz gaixotu batean kokaturiko gogo eritua gara. Horretaz gain, esan beharra dut aipaturiko prozesu globalizatzaileak ez direla gauza berria historian. Erromak egin zuen Mediterraneoan, eta inperio orok burutzen ditu honako abantailak lortzeko: biztanleria homogenezatua, lanerako indar barea, zerga-erregimen eraginkorra eta aparatua militar boteretsua.

Hala, Europa globalizatu berriaren aurre-baldintza da herri europarren akulturazioa. Hori da herri euskaldunaren biziraupenak aurrean duen mehatxurik handiena, baita Europako⁴ herri guztiena, kasu bakoitzeko bereizitasunak gorabehera. Bidegurutze-egoera batean gaudela esan daiteke, zeinak adierazi dezakeen Euskal Herriaren amaiera baina baita bere berpizkundera ere. Hori egiten denaren arabera izango da.

Bi arrazoi-talde Euskal Herria, era iraultzailean, bere izatasunean berretsi dadin

Aurretik aipaturikoagatik, horietako bat litzateke Euskal Herriaren berezko ordena politiko, sozial eta ekonomikoaren izaera natural eta iraultzailea, zeinak erregimen estatista-kapitalista garaikidearen gainditzea ahalbideratu dezakeen, edo hori dirudi gure egungo ezagutzaren arabera. Herri europar orok bere barnera begiratzeko duen beharra litzateke bestea, bere izatearen hoberena berreskuratu, birformulatu eta eguneratu dezan eta, modu horretan, esperientzia-aldetik den hori izatera iritsi dadin.

Hori horrela, hedatu, sendotu, garatu eta zabaldu egin behar da euskal mundu-ikuspegi eta bizimodua, bizitzako esparru guztietan euskaldunak izan ohi dituen printzipio eta balioak, bere ordena axiologikoa eta, finean, garai batean, eta egun ere, euskaldunak propio izan dituen bereizitasun horiek. Baina, bata zere, euskaldunak berrasmatu egin behar du bere burua XXI. menderako: den horretatik izatera iritsi. Eta guzti hori honako ziurtasunean funtsatuz: egiazko balio-sistema propioan sakonduz gero lortuko duela zinezko gizatasun unibertsala, zeina herri oren esentzian aurkitzen den, gerora forma bereziak hartzen dituelarik kasu bakoitzean. Konplexua da egin beharrekoa. Aldi berean garatu beharreko analisi bikoitz baina gurutzatu bat behar da horretarako, aldiro banatu eta elkartuko direnak. Batetik, egungo testuinguruaren azterketa legoke globalizazioa litzatekeelarik arazo nagusia, eta, bestetik, euskalduntasuna esperientzia-aldetik zer den eta zer izan den. Orainaldiko arazo handiei konponbide zehatz bat emango dien itxaropenez burutuko lirateke ikerketa horiek. Era horretan, meta-analisi bat dago egiteke euskalduntasunaren esentzia zehazteko helburuaz, batetik, eta berau eredu zein bide-erakusle bilakazteko, bestetik, XXI. mendeko gai

erabakigarriak jorrazteko orduan. Agian hori ez da posible izango zenbait kontutan, baina aukera paregabea litzateke sormenezko hausnarketa bat garatzeko, asmatuz eta eraberrituz. Euskalduntasuna bada funtsezko elementua, osagarria dena, aldiz, positiboki atzerritarra den hura behar luke, unibertsaltasuna izanik oinarritzko ideologia. Esan beharrik ez dago ezinbestekoa zaiola euskal ondareari egun munduko edozein tokitan atzeman daiteken zera onuragarri eta sortzaile horren ekarpena, nahiz eta euskal mundu-ikuspegi eta bizimodura egokitu beharko den aurretik. Oinarritzko nozio bat da iraultza eta tradizioaren arteko elkarketa. Batetik, akulturazioa ekiditen da hori aurrera eramanez gero, eta, bestetik, izandakoaren solidotasunean funtsatzen da iraultza, aldi berean tradizioa erreazioan degeneratzea ekiditen delarik, sarritan gertatu ohi delarik pentsamolde atzerakoian. Izaera unibertsalekoa da formulazio hori, munduko herri guztientzako baita onargarria, baina are errazagoa da ezartzen euskal lurretan, izan ere, V. mendean gauzaturiko iraultza herrikoi baten ondorio dira bere tradizioak.

Euskal Herriaren akulturazio historia

Akulturazioa da giza talde batek bere kultura galdu eta izate propioa ukatzen duenean, bere buruarengana mespretxua, lotsa eta, are gehiago, auto-gorrotoaren bitartez. Egun, europar guztiak daude erruduntasun-operazio baten menpe, non endofobiara, hots, komunitate propioaren etsaitasunera bultzatzen zaien goialdetik. Euskal Herrian Europako beste tokietan baino gutxiago atzematen bada ere, hemen euskal esentzia bereziaren ahanztura otzan eta jarrai bat ari da gertatzen, buruak gaur kontu batean eta bihar beste batean galtzearen bitartez.

Lehen mailako akulturazio-gertakizun bat izan zen Nafar Estatuaren egituratzea XI. mendean. Ez baitzen euskalduntasunaren ideian oinarritu Antso III Nagusia, hots, Estatu-antolakuntza horren sortzailea. Erromatartasuna izan zuen euskarri aitzitik, eta hori errestituzio bat izan zen finean, iraultza bagauda baskoiak V. mendean garaituriko erregimen politiko eta sozial haren aurka buruturikoa hain zuzen ere (hasieran zuhurra eta ahula, baina etengabea). Zenbait historialarik ukatu egiten badu ere, hark “*imperator totius Hispaniae*” izendapena erabili zuen bere buruarentzako, are gehiago, “*imperator*” baten tankerakoa izan zen bere egintza, erromatar pentsamoldearen jarraitzailearena alegia. “*Errege baskoi*” gisa izendatzen du herri arruntarentzat tokirik ez duen historiara atxikirikoak, errege eta batailetara mugatzen denak. Anakronismo bat litzateke izendapen hori bere mendean jada ez zelako hitz hori erabiltzen, izan ere, nafarragatik izan zen ordezkaturia. Clunyren, hau da, Vatikanoa eta elizaren aldeko kartsu bat izan zen egia errateko, eta horregatik deitzen zaio “*errege europeizatzaile*” gisa historia atzerakoitik, zeina akulturazio-prozesu larri baten adierazpena izan zen XI. mendean. Gaztelarrok beragatik ditugu erregeak, eta horrek ez gaitu preseski pozten. Fernando I.a izan zen gure lehen erregea, hots, Antso III.aren semea, eta berarekin hasi zen Gaztelaren endekapena. Liebanako Beato izan bazen erregetza tirania eta zitalkeria moralean bilakarazi zuena VIII. mendean, Antso III. ak erregez bete zuen iberiar penintsula...

Alegia, “*Baskoia*” moduan izendaturia izan da ia bederatzi mendetako existentzian euskara behin ere erabili ez zuen Estatu baten sortzailea! Esan beharra dago garai hartako nafar eta iruindarren %99ak erabiltzen zuen mintzaira ukatu zuela, baita batzarrea bera mespretxatu ere, ordena politiko berri bat antolatuz bere bizkar. Hala, bi mendeetan zehar baskoiak eraso zituen Estatu erromatar edo erromatar-bisigodo haren kopia piriniar batez izan zen ordezkaturia batzarrea. Izan ere, erromatartasunaz ari da Estatuaz mintzo dena, eta euskalduntasunaz, osteria, batzarreaz ari dena. Jabetza pribatu kontzentratuaren jatorria da Estatuaren sorrera ezinbestean, eta horrek herri lurraren gainbehera dakar, baita berarekin batera beti existitu izan den jabetza familiarrarena ere, komunitate edo kolektiboaren bestelako jabetza-mota bat

den heinean. Bi jabetza klase aurki daitezke Euskal Herriaren hastapenetan: familia-jabetza, etxea delarik erdigunea, eta herri jabetza edo komunala, udalerrri edo auzoari loturikoa, azken batean, batzarrearen bitartez antolaturiko bizilagunen komunitateari.

Bi horiekin batera, badira ere beste jabetza pribatu deszentralizatuak, zeinak positiboak diren banakoaren subiranotasunaren adierazle diren heinean. Pertsona da euskal komunitate herrikoiaren zutabe eta eustazpia, baina zinezko pertsona litzateke eta ez abstrakzio doktrinario bat Nabarralden argitaraturiko testuan aipatzen dudana modura. Hala izan zen eta hala izan behar du, euskal kulturak ezinbesteko garrantzia igortzen baitio pertsonari, eta ez du berau subsumitzen, galkatzen, ezta ere askatasuna, subiranotasuna, duintasuna eta banakortasunaren balioa ukatzen duten forma taldekoietan txertatzen. Izan ere, pertsona bera ahalik eta autonomia handienez betetzeko existitzen dira adierazpen kolektiboak, eta ez berau lausotu edo txikiagotzeko. Soilik Estatuak ezgaitzen dituzte banakoak talde totalizatzailean, goitik maneiatutako jendetza-barnean murgilduz edo horretan ahaleginduz, ordena sozial despotiko eta, ondorioz, taldekoa⁵ sortuz.

Herria eta Estatu bat bera direnaren sineskeria errealtateak onartu ezineko falazia da, eta, modu berean esan daiteke herriak Estatuarekiko izan dezakeen behar horretaz bere babeserako. Onura propioa jarraitzen du Estatu orok, eta gorroto duen herria menperatu, zapaldu, endekatu eta ustiatzen du, lehenik eta behin. Hala, beti existituko da herria eta Estatuaren arteko antagonismoa. Horrexegatik mespretxatu eta aurkakotzen du Nafarroako Estatuak (lehen Irunakoa) euskalduntasunaren muina, zeina honako elementuek osaturiko multzoagatik zehazten den: euskara, batzarrea, herri jabetza, euskal ohiturazko zuzenbidea, auzolana, haurren hazkuntzarako elkarren arteko laguntza-sistemak, elkarbizitza oinarri duen jaiaren kontzeptua eta Euskal Herriko pertsonen arteko harreman-era bereziak, garrantzitsuenak aipatzearen. Amerikako konkista eta ustiapenean parte hartzeko asmoz, Estatuaren baitan antolaturiko nafar klase patrizioaren zati handi bat gogotsu zegoen Gaztelar koroarekin akordio batera iristeko 1512. urtean, eta horrexegatik ez zen izan horren indartsua inbasioaren aurkakotasuna. Estatuak bere baitarako probetxua bilatu ohi du menperatzen duen herriaren aurka. Estatu oro da erromatartasuna, eta erromatartasun oro adierazten da Estatu bezala. Kanpoan bilatuko ditu babesleak herriagatik mehatxatua sentitzen den Estatuak, bertako hizkuntza eta kultura baztertuz, modu zeharkakoan eta zuzenekoan ere. Ondorioz, Estatu herrien desnazionalizaziorako eragile indartsu bat izan ohi da baldintza zehatz batzuetan.

Estatu gaztelarraren eraginpean geratzen dira Baskongadak, batez ere XIV. mendetik aurrera, muga nabarmenekin hala ere. Adibidez, esanguratsua da nola Bizkaiak ez zuela onartzen euren monarka moduan Gaztelako erregea, baizik eta jaun bezala soilik. Horrek aditzera ematen du bazela, oraindik ere, erretasunaren arbuiapena goi Erdi Aroko mundu-ikuspegi politikoaren erroetan. Hala, XV. mendean gaztelar idatziriko lurralde-foru baskongadoak izango dira akulturazio-prozesuaren gailurra, jada hasia zen arren XI. mendean latinez idatziriko udalerriforuekin edo aurrerago erromantzean idatzirikoekin. Elite geroz eta boteretsuagoan bilakaturiko jauntxo euskaldunen eta Gaztelako koroaren arteko paktua dira hiru herrialde baskongadoetako foruak. Estatu, proto-Estatu edo para-Estatu baten moduan antolaturik, beste behin ere bere jatorrizko herria traizionatzen ikus dezakegu euskal oligarkia, eta gaztelar elitearekin testu juridiko batzuk hitzartzen, euskal herritarren %99ak ulertzen ez zuen hizkuntza batean idatziak, bestetik.

Hori bera gertatu zen XIII. mendeko bigarren erdialdean idatziriko Nafarroako Foru orokorrarekin, hau da, ez dagoela euskaraz idatzia baizik eta nafar erromantzean (nahiz eta, ezinbestean, euskal terminologiarik erabiltzen den), erromantzeak erromatartasuna helarazten baitu, zeina Nafar Estatuaren oinarri doktrinala den. Eta egia da ere batzarretan formulaturiko

ohiturazko zuzenbidearen zati bat txertatzen dutela lurralde-foruek, eta nolabait ere iradokitzen dutela euskaldunon jatorrizko antolakuntza ez-estatala, modu desitxuratuan bada ere, baina zuzenbide erromatarra da bere eduki eta formen muina, hau da, Estatuaren zuzenbidea. Azkenean, foruak ez lirateke “euskalduntasunaren erroak”, aitzitik beste atal bat lirateke euskalduntasunaren ukapen eta hondamendiaren bidean.

Estatu-erakundeetako goi funtzionario eta buruzagi militarrek dira jauntxoak. Hala, barrenetik doaz euskal auto-gobernu erakundeen jabe egiten, herrialde eta lurraldeetako erakundeetatik hasirik. Errazagoa zen lehenik horiek bereganatzea, herri asanbladak herritarren esku mantentzen baitziren. Gaztelar Estatu jauntxoez baliatu zen herria zapaltzeko, eta horren eredu paradigmakoa da Mendozatarren leinua, zeina bere jatorrizko oinetxetik (Mendoza, Araba) hasi zuen bere ibilbidea gerora Gaztelako jaun-etxerik nagusienetakoa izatera heltzeko XIV. mendean, Guadalajaran izan zuelarik bere erdigunea, azkenik Espainiako Handien gradua lortu zuen arte mendeetan barrena. Menperatzaile eta tirano berberak pairatu behar izan dituzte, sarritan, euskal eta gaztelar herriek. Bestetik, esan beharra dago okerra dela jauntxo hitza “terrateniente” delakoarekin alderatzea. Deformazio ekonomizista bat litzateke hori, eta termino politiko estataletan ulertu behar da jauntasuna edozeren gaintetik, eta soilik bigarren maila batean lurjabe gisa. Ziurtasun osoz, X. mendean du abiaburua euskal jauntxoen klaseak, baina ez du nahikoa eragin lortuko XIII-XIV. mende-arte, ahalik eta koroaren inguruan antolatzen den arte bai Nafarroan eta bai Baskongadetan. Goi-funtzionario eta jaun euskaldunen beste tanda bat azaltzen da XVIII. mendean, nafarrak oraingo honetan, gaztelar herriarengan eraisten direlarik. Uztaritzeko Geronimo da horren adibide, Felipe V erregearen ministroa izan zena. Julio Caro Barojak “nafar ordua” moduan izendatu zuen Madrilen eta Espainiar Inperioan jazotako fenomeno hura. Finean, Espainiaren zerbitzura jarriko euskaldunak izan ziren, bai batak eta bai besteak.

Karlismoa, euskal gizartean izan duen onarpen guztiarekin, ideologia atzerritar eta arrotz batean funtsatzen da, hots, hispaniar erregetza paternalista eta borondate onekoan. Egia esan, gaitzik hoberena izan zen espainiar liberalismoarekin alderatuz gero, Euskal Herriaren balio eta oinarrien ukatzaile sutsua izan zelarik berau. Nolanahi ere, aurreko mendeetan hasiriko prozesu akulturatzailearen erreleboa izan zen karlismoa. Horretaz gain, modernitatezko beste bide baten gisa ulertu dezakegu, akaso motelago baina seguruago, gizakia izaki hutsal batean bihurtu eta komunitate herrikoiak suntsitzearen bitartez handituriko Estatu zuelarik xede. Azken batean gaitz bat zela ulertu beharra dago gaitz hoberena zela aipatzerakoan. Akulturatzailea zen, gainera, estatu-erakunde aurre modernoetan zituelako jarriak itxaropen guztiak, eta, erakunde ahul eta leunagoak baziren ere, ez ziren zinez euskal herritik jaioko. Iraultza frantsesaren zorigaitzoko mitoa, inposaturiko modernitatearen paradigma moduan, dagoen mitorik akulturatzaileena da, aurrerakuntzaren teoriaren bertsio hilgarri bat delako gizateria guztia bere balio endekatuetan homogeneizatzea helburu duelarik. Bertatik sortzen dira egungo legediak (merkataritzakoa, zibila, prozesala eta abar), zeinak ohiturazko euskal zuzenbidea ezabatuko duten. Mito horrek eragin handia izan zuen euskal gizarteko zenbait sektoretan, bai bere forma originalean eta baita marxismoarenean ere, berau galiar “erradikalismo” horren jarraipen bat izan zelarik. Marxismoetik sortzen da, gerora, hirugarren munduko ideologia, zeinak “herri zanpatuen askapena” izango duen helburu, baina eraginkorki desnazionalizatzaile eta akulturatzaile den patroia berdin baten menpean. Horretatik atera da egungo erregimen neokoloniala, koloniala bera baino kaltegarriagoa dena.

Era berean, Euskal Herriari arrotza zaion ideologia batez elikatzen da Sabino Arana eta PNVren lehen euskal nazionalismoa, hots, katolikotasun vaticanista. Hala, ekialderantz begiratu behar dute euskaldunek, arrotza zaion toki batean aurkitu ahal izateko euren askapenerako argia, hots, Erroman. Argumentu-sorta landu batean justifikatu zen guzti hori, zeina osatua izan zen katolikotasuna, foralismoa, enpresa-mundua eta estatal-nazionala bateratzen zituen

pentsemendu jorratu batez. Hala, Estatu gauza bikaina zen. Hobe euskal Estatu aukeran, baina, beste erremediorik ezean, ondo zegoen espainiarra ere. Kapitalismoa, aldiz, modernitatearen adierazpen onargarria zen, baita errukiorra ere. Finean, EAJ betidanik izan da euskaldunentzat eginiko alderdi espainol bat, eta, ondorioz, desnazionalizatzaile eta akulturatzailea. Guzti horrekin, beste pausu bat eman zuen aurrera euskal gizartearen oinarritzko balio eta mundu-ikuspegiaren gainbeherak.

3. munduko deskolonizazio –prozesuen azaleko azterketa bero batetik burutzen da Euskal Nazio Askapen Mugimendua (ENAM) zeritzonaren eraketa aurreko mendeko 50 eta 60. hamarkadatan. Haren sorkuntzan erabakigarria izan zen, batez ere, 1962ko Aljeriaren independentzia. Hala, besterik gabe izan zen alderatua Euskal Herria Aljeriarekin, baita Kubarekin ere, eta ontzat hartu ziren gertakizun horietan erabilitako bideak euskal aferarako nahiz eta izugarriak izan errealitate horien arteko ezberdintasunak. Beste behin ere, onartuak izan ziren eredu atzerritarrak, arrotzak, kanpotarrak eta exotikoak, zeinak ez duten kontuan hartzen, ez eta ezagutzen ere, Euskal Herria, euskal historia eta euskal gizartearen orainaldia, eite berriaren akulturazio eta desnazionalizazio prozesuak izan direlarik.

Sozialismoaz hitz egiten zen, baina ezer gutxi euskal komunal edo herri jabetzaz. Izan ere, Kuba, Sobietar Batasuna eta, beranduago, Venezuelan ezarritakoaren kopia eta antzeratze bat zen “sozialismo” edo Estatu kapitalismo hura. Era horretan, harridura eragiten du irakurtzeak nola proposatzen zen horren alaiki eredu abstraktu batean oinarrituriko “euskal ekonomia sozialista” duela hamarkada gutxi batzuetako liburuetan. Eduki nazional eta herrikoi orotatik husturiko ekonomia eta munduko edozein naziotan ezargarria, teorian, zeren eta gertakizunek kontrakoa aditzera eman dute. Erdeinuz ikusten ziren akaso milaka urtekoak ziren erakunde sekularrak, desagertu egin behar zirelarik “feudalismo” eta “klerikalismo” kiratsa zeriela, ahalik eta tokia utz ziezaioten ordena berriari, zeina litzateke izugarri modernoa, teknokratikoa, produktiboa, eraginkorra... euskaldunetik ezer gutxi duen fantasia hiper modernoa, finean.

Batzarrea arbuaiatua izan zen estatulatria kartsuan oinarrituriko ideien alde, edota erregimen parlamentario alderdikoiaren noranzkoan. Lehen aipatu bezala, bitxikeria folkloriko baten moduan ikusi zen komunala. Auzolana, berriz, baserritarren kontu gisa izan zen hartua, gauza zentzugabea eta garaiz kanpokoa azken batean. Guztiz baztertuak izan ziren haurren hazkuntzarako emakumeek izan ohi zituzten elkarren arteko laguntzarako praktikak, zeinak M. Carmen Basterretxeari esker izan diren berreskuratuak. Duela 50 urte Alan Lomax musikologoari txundiarazi zizkion euskal jai herrikoien muina, aldiz, material etnografiko hutsera izan zen murriztua. Euskal Herriaren historia, bestetik, gutxietsia izan zen zenbait pasarte salbu, eta, are okerrago, desitxuratua geratu zen “materialismo historikoa” deritzonaren parametroen baitan, bilakaera historikoa jorratzen omen duen ustezko zientzia hutsezina omen delarik. Euskarari dagokionez, mundu-ikuspegi euskaldunetik izan da banatua sarritan, hau da, errealitatearen osotasuna atzemateko modu autoktonotik, eta zigortua izan da dauden komunikazio-tresna guztietatik bat gehiago izatera, guzti horrek egoera larrian uzten diolarik ingelesaren aurrean, batez ere gazteriaren artean. Gauza onartua da “gure arbasoek maila etiko gorena zutela”, baina, horrekin batera, ukatu egin da herri euskaldunaren berreraikuntza axiologiko eta moral baten beharra politikakeri baztertzaila eta obsesiboa dela medio. Finean, zinezko Euskal Herriak ez zuen lortu dogmatismo eta doktrina-zaletasunaren laino itxietatik gora bere burua nabarmentzea. Dena espero zen politikarenagandik, berreraikuntza nazionala politika hutsetik haragoko zerbait dela kontuan hartu gabe. Bizitzako elementu material eta materiagabeen arteko bat-egite zabal bat dute oinarri herriek, batez ere Euskal Herriak, eta horiek ezin dira politikaren esparru meharrera murriztu, are gutxiago erakunde edo Estatuaren parametro politikoetara.

Hala, gogo-berotasun hori baretzen joan zen euren izaera arrotzagatik akulturatzaile eta desnazionalizatzaileak ziren eredu onartu horiek huts egin zutenean. Aljeriak mugimendu herrikoi boteretsuak ezagutu zituen 80. hamarkadan, baina horiek gogorki jazarri zituen hain justu ANF (Askapen Nazionalerako Frontea) erakundearen Estatu "nazionalak" ehunka hildako eraginez zenbait gertaeratan, eta horrek egoera deseroso batean utzi zuen ENAM bera behin baino gehiagotan. Gertakizunek argi utzi zuten Estatu "nazional" aljeriarra ez zegoela bere herriaren alde, baizik eta horren aurka, berau gogortasunez erreprimitzen baitzuen, eta horrek pentsarazi zuen bazela antzeko zerbait gertatzerik Euskal Herriaren "independentziatik" sorturiko euskal Estatu batekin, hots, jokabide krudela izan zezakeela bere herriarekiko horrenbeste gurturiko eredu ipar-afrikarraren gisa, eta guzti horrek susmo desmobilizatzaile bat sortu zuen. 1991ean desegiten da "Sozialismo errearen" blokea azkenik, eta ospea galtzen dute egun arte biziraun duten esperientzia gutxi horiek. Azkenik, Nafarroa eta Baskongadetako erakunde espainiarretan integratzen da ENAM mugimendua. Bideraezina bilakatzen da bere helburu estrategikoa, hots, Estatu espainola negoziatziora behartzea, esperientziak berak horretarako gaitasun-falta erakusten duenetik eta momentu historikoa Estatuaren aldekoa izanik. Garaipena bada borrokaren xedea, horretarako agertoki estrategiko mesedegarri bat aukeratu behar da lehenik, eta ENAMek ez zuen hori egin. Análisi hori burutu nuen, jada, Egin edo *Punto y Hora*ren kolaborazioetan, eta baita beste argitalpenetan ere. Aurre-politikotasunari, bizipen, harreman eta bizikidetzari, historikotasuna eta behinolakoari, axiologia eta etikari, banako eta pribatuari espaziorik utzi ez eta guztia politikara murriztu zuen ENAMen politikakeriak, eta horrek ezinezko egin zuen berreraikuntza nazionala. Ez dago politikatik soilik eraiki daitekeen gizarterik, politika giza bizitzaren zati soil bat baita.

"Independentzia" zen politikakeriaren kontsigna-gakoa, horrek euskal Estatu baten konkista adierazten zuelarik, edo, beste hitzetan, klase politiko aktibistaren nagusitasuna herri euskaldunaren lepo, behinik behin. Behinik behin diot zeren Estatu espainiarraren onarpenaren baitan burutzen zen eguneroko ekintza KAS programarekin, nahiz eta bere indarren urritze bat aldarrikatzen zen, baina soberan ikus zitekeen bere izaera sozialdemokrata eta kapitulazionista.

ENAMek barne-kontraesan nabarmenak integratu zituen. Baina adieraziriko akatsen ondoan baziren alde positiboak ere, erantzun kartsu bat eman baitzitzaion Frankismoak errepresioa eta immigrazioaren bitartez herri euskalduna itozteko harturiko neurriei. Euskal Herriaren birrinketaren testigu pasibo izateari uko egin zioten borroka horretan parte hartu zuten euskaldunek. Eta hori izan zen hizkuntza eta kulturaren inguruko jakin-minaren berpizkundearen kausa, ondorio baino. Horretaz gain, guzti horrek argitara eman zuen euskaldunak bazuela, oraindik ere, bizitasun eta garrik bere baitan, eta euren maila pertsonal handia erakutsi zuten borrokara atxikirikoek, kausa handi bategatik arriskatu eta sakrifikatzeke gaitasuna zutelarik.

Proposamen bat euskalduntasunetik

Zenbait sektoretan euskalduntasunerako itzultze bat ekarri du etengabeko ospe-galtze, pausuz pausuko agortze eta Euskal Herriarentzako ustezko estrategia eta konponbide arrotzen kopian oinarrituriko hirugarren munduko ereduaren porrot begi-bistakoak, zinez euskalduna den horretan bilatuz gure arazo eta gorabeherentzako erantzuna edo orientabidea gutxienik.

Mendeetan zehar burututako akulturazioarekin hausten duen erabateko jirabira dugu, beraz, auzolan mugimendua. Bertan jada ez dira bilatzen konponbideak kanpoko ideia eta jardunetan, baizik eta auzolanean oinarrituriko euskal gizarte antolaketa propioaren jarduerak lehenesten dira, bertan bilatuz iradokipenak eta erantzunak. Honetan datza bere meritu itzela,

gabeziak gabezia. Horietako bat izan da auzolana hemen eta orain egiteko ekimen bezala ulertzea, ezinezkoa izanik orokorrean industria eta zerbitzuetan errotutako gizarte antolaketa hiritarrean. Dena den, auzolana bultzatu behar dugu oraindik bizirik dirauen lekuetan, euskal gizartearen iraultza eta berreraikuntza-egitasmoaren oinarritzko atal bihurtzea funtsezkoa izanik, soldatapeko lana, eta beraz, erregimen kapitalista gainditzeko bidean, askatasunean, norbanakoan, familian eta elkarkidetzan errotutako gizarte bat sortzeko helburuarekin. Auzolan mugimenduaren beste akatsa osotasun falta izan da, ez baititu egungo arazoak bere osotasunean ulertzen, ez eta proposamen integralik eskaintzen. Auzolan egitasmoak hartutako bide zuzenaren adierazlea izan da euskaltasuna bere osotasunean ulertzeko pausua ematea estrategia, helburu eta egitasmoak burutzerako orduan. Guzti horrek, baina, gainbehera egin zuen eta hutsal bihurtzeko zorian gelditu zen egunerokotasun zitalean bideraezina izanik, eta partziala era berean; honek, ordea, ez dio hastapeneko meriturik kentzen. Aldi berean, hirugarren munduko proiektu "independentista"-k pisu handia du berau azaleratzen den garairako, marko politiko hura oztopo izanik bere hedapenari begira. Gaur egun egoera oso bestelakoa da eta hirugarren munduko irtenbide hori agortua dago, iraganeko kontua izaki, beraz etorkizunean are toki gutxiago izango du.

Auzolan mugimenduak bere marko propioa du; txukun eta etengabe, testu eta materiala argitara ematean datza hain zuzen. Eta zentzu horretan badira jada hainbat lan argitara emanak. Batzuk aipatzearen, M. Carmen Basterretxearen "Euskal Herria, kultura matrilineala", Egin Ayllu-ren "Las vecindades vitorianas", S. Santos eta I. Madinaren "Comunidades sin estado en la montaña vasca", Patxi Azparrenen "Batzarreak, jatorrizko antolaketa", Mercedes Galan-ekin argitaratu zituen nafar garo-saileko komunalari eta faxeriari buruzko Amparo Zubiriren liburuak, Jasonerenak, Pablo Sastreerenak eta horien artean baita neureak ere, oraindik prestaketa lanetan daudenak ahaztu gabe. Bakoitza bere erara, honako oinarritzko puntuak partekatzen dituen ekintza eta iritzi-korronte bat eratzen joan gara: 1) Esperientziak, balio sistemak, bizimoduak eta iraganeko zein gaur egungo jardunbideek mugatzen dute euskaltasuna. 2) Euskaltasunaren historian, tradizioan eta orainean, egungo gai erabakigarrientzako onuragarri diren erantzunak aurki ahal ditzakegu, beraz etorkizuna eraikitze balioko digute⁶ 3) herentzia ideologikoak eta oinordetzan jasotako mundu-ikuskerak XX. mendeko baldintzetara birformulatua, hobetua eta birsortua izango bada ere, akulturazioa da benetako gaitza. 4) Kanpotik etorritikoa oso baliotsua eta ezinbestekoa da ezbaierik gabe, baina nahitaez txertatu beharko da denborak ematen duen eskarmentuaz euskaldunok sortu dugun mundu-ikuskeran, axiologian eta bizimoduan⁷.

Hausnartu beharreko hainbat auzi garrantzitsu

Hausnartu bakarrik ez, Euskal Herriaren iraultza eta birjaiotze-egitasmo bati erantsi behar zatzaizkie. Zeintzuk dira auzi horiek baina? 18 izendatuko ditut nik. Gehiago ere badira, baina horiek dira funtsezkoenak. Hots, horietako bakoitzaren edukia adierazgarri soila besterik ez da eta berauen azalpena nire iritzian du soilik oinarria, eta, berau zuzena izan ala ez, ezbaierik gabe izan beharko da beste batzuek osatu, zuzendu eta garatua.

Bat. Askatasunean eta autogobernuan oinarritutako sistema politikoa. Batzarreak eta beronen bidez eraikitako lurralde-erakundeak barneratzen ditu horrek, beren maila desberdinekin eta elkarrekin loturik, ahalik eta Estatu erakunderik gabe, batzarrean oinarritutako eta zazpi herrialdeetarako gobernu-aparatu bakar bat osatu arte. Herri batzarrez eratutako erregimena zilegitzen duen aurre-baldintzetan sakontzea eskatzen digu honi buruz egin beharko dugun meta-analisiak, gizabanakoaren kalitate-mailatik hasita. Horrek parlamentarismoaren gaitzespena suposatzen du bere adierazpen guztietan, eta baita partitokrazia doilorraren, hau da, autonomia-sistema berarena ere. Bizkaiko egoera aztertzeak, erregerik gabekoa eta

zuhaizpean⁸ izaki, asko erakuts diezaguke. Hau guztia kritika bat da, ezinbestean, erregimen parlamentarioaren eta bere edozelako adierazpenen aurka, hots, ofizialki “demokrazia”, edo apalki “ordezkaritzazko demokrazia” izendatua dena, egiazki herriari/herriei askatasunik aitortzen ez dien diktadura-sistema bat delarik.

Zergatik da harrigarriro iraultzailea euskal ordena politikoa, zeina oraindik egungo instituzioetan ere atzeman daitekeen? Benetako iraultza baten ondorio delako, bagauden iraultza, zeinak garaipena lortu zuen erromatar sistema zapaltzailearen aurka, Espartakok ez bezala. Hain zuzen ere etsai berbera zuten eta helburu berbera iradoki zuten bai Espartakok, Kristo aurreko I. mendean italiar penintsulan, eta bai euskal bagaudek, V. mendean iberiar penintsulako iparraldean: esklabotasunik gabeko eta bere buruaren jabe izango zen gizarte bat eraikitzea, askatasunean oinarritutako bakarkako zein taldekako lan-harremanak izango zituena. Batzuk garaituak izan ziren eta besteak, aldiz, garaile suertatu ziren, horixe delarik bien arteko desberdintasun nagusia.

Gure azken helburua politikoki antolatu eta bateratutako Euskal Herri bat sortzea da, bere aniztasuna kontuan hartuta betiere, lau mailatan banaturiko antolakuntza politikorekin: 1) udalerrikoa, batzarren biltzarrekin; 2) eskualdekoa, herri batzar bakoitzeko bi bozeramaile izango dituen autogobernu erakunde batekin; 3) herrialde bakoitzean, eskualde bakoitzeko bi bozeramaile izango dituen gobernua eratuko da; 4) herrialde bakoitzeko bi bozeramaile edo gehiagoz Euskal Herriko gobernua egituratuko da. Hau guztia iraganean izan zela frogatu dudalakoan nago nire “El derecho consuetudinario en Navarra. De la revolución de la Alta Edad Media al Fuero General” (Iruñako “Haria”-ak argitaratua) lanean, forma berezi batez izan bazen ere, zeina bagauden iraultzaren lorpen handiena izan zen goi Erdi Aroan, V. mendetik X.ra, ondoren galtzen joan bazen ere Euskal Herriaz pixkanaka jabetzen joango ziren estatu antolamendu desberdinen gorakadarekin.

Hori bai, euskal lurrian oraindik bizirik dirauten baldintza jakin batzuk behar dira horretarako, eta horiek oso aspaldiko usadio eta ohituretan ikus ahal ditzakegu. Kargudun publikoak urtero aldatu behar dira eta ez dute ordainik jasoko. Funtsean, boterea herri batzarrek izango dute, hau da, zenbat eta gorago egon autogobernu erakundeak, orduan eta botere gutxiago izango dute. Askatasunaren oinarria herri armatua izango da: 14 urtetik gorako gizon-emakumeek osatua, etxe bakoitzeko gerlari bat (udal milizietan ohi zenez) edo adin jakin bateko guztiak bestela, erabakitzen denaren arabera. Politikak guztion ongizatea bermatu behar du gizalegeak dioenez. Horretaz gain, ordaindu gabea behar du eta politikari profesionalik gabekoa izango da. Ez da ez armada iraunkorrik ez eta poliziarik egongo, herritar armatu eta bere kasa antolaturikoa izango da herriaren zaintzaz eta legedia betearazteaz arduratuko dena, batzarreak izanik legezko aginte militarrik hautatuko dituztenak, zeinak beste edozein udal-zerbitzuren betebeharrak, ikuskatze eta mugaketa berberak izango dituen. Beraz, armatutako auto-zaintza moduko bat izango genuke. Funtzionario profesionalik ere ez litzateke egongo, batzarrearena izanik bizilagunak izendatzearen ardura urteroko nahiz dena delako administrarritza-lanetarako. Zergak ahalik eta baxuenak izango lirateke eta ahal den neurrian lanaren eta jeneroaren bidez ordainduak, beti ere gobernu erakundetan politikoki antolatutako baseek adostu eta ikuskatuta.

Zein baldintza behar ditu euskal herritarren iraultzak garaipena erdiesteko? Europa Batasuneko eta berau osatzen duten Estatuaren krisi sakon, gainbehera eta kaos egoera bat, Espainia eta Frantzia batez ere. Europar herriek iraultzaren bidea hartzen dutenean, euskaldunek giza komunitate bezala birmoldatzeko aukera izango dute, nahiz eta hori beraien ahaleginen baitan egongo den, funtsean. Baina lehenik herriaren eraikuntza nazional eta berreskuratze-lan sakon bat egin beharko da, horretarako hainbat belaunaldiren lana beharko delarik.

Azpimarratu beharra dugu prozesu guztia iraultza-bidezkoa izango dela edo, bestela, ez dela inora iritsiko. Independentziaranzko burgesiaren bidea ezinezkoa da egungo baldintzetan, 1945a geroztik Hirugarren Munduan izandako askapen prozesuen kopiak ezinezkoak diren bezala, zeinak ez ziren benetako askapen prozesuak izan, aitzitik, erregimen kolonialetik erregimen neokolonialera igaro baitziren herri horiek. Hala, zera adierazten digute ENAM-en porrotak eta ondoren 2017an kataluniar “procés”-arenak: Europa-mailan edo gutxienez bere baitako eremu zabal batean garatzen den iraultza ez bada ematen, europar herriek ez dute askapena lortuko. Honakoa, gaur egun, denbora ertainean bizirautea lortzea bezala ulertu behar dugu (iraganean iberiarrek, zeltiberiarrek...lortu ez zutena). Europar herriak hil ala biziko borroka batean daude sarturik.

Bi. Komunala. Ez da erreza behar den bezala ulertzea, hainbat eta zailagoa bere funtsa hedatzea mende honetako industria eta zerbitzuen alorrera, nekazaritzaz gain. Euskal Herria herrikoitzea beharrezko ekintza da egun eta ez du ia ikustekorik nekazaritza-munduarekin, bertan biztanleria aktiboaren %2ak bakarrik egiten baitu lan. Komenigarria litzateke azterketa sakon batez komunalaren benetako izatea zehazki ulertzea ondoren aitzinako berezitasunak alde batera utzita gaur egungo baldintzetara egokitu ahal izateko. Egiaz kapitalismoaren eta jabetza pribatuaren edonolako pilaketa bidegabe zein neurrigabekoaren aurkako egitasmo bat izango da eragiketa horren ondorioa. Komunala hertsiki loturik dago familia edo familia-norbanakoaren jabetzarekin, zeina kolektiboa den askotan ahaztu egiten bazaigu ere.

Hiru. Auzolana, zeina bizilagunen arteko lan, ekoizpen, gizabidezko elkarlaguntza edo bestelako lankidetzak bezala ulertu behar dugun, oso gauza konplexua da, zeren eta auzolan mota asko dago (auzokoa, bakarkakoenganako laguntza orduen edo lanegunen trukean, gaixoenganako laguntza berauek egin ezin izan duten lana eginez, komunalean batera laborantza eginez...). Batera egiten zen lan bizibide berdinak ziren leku batzuetan, non jeneroa elkarbanatu egiten zen irizpide jakin batzuen arabera, buruturiko ekarpenaren arabera, bakoitzaren beharren arabera edota biak kontuan hartuta. Baziren herri sormenak asmatutako ehunka elkarlaguntza-mota. Auzolanaren gaurkotze bat egingo bagenu, ezinbestekoa litzateke lan ez-askea gaintzea, hots, soldatapekoa, bagaudek erromatarren garaiko esklabotzarekin bukatu zutenekoaren parekoa izango litzatekeelarik berau⁹. Hartu-eman oso ona duten bizilagunen arteko elkarlaguntza eta mundu-ikuskerak bat da auzolana. Ezin daiteke alde batera utzi sentimenduen, emozioen eta materia-gabeko bizitzan berezkoa den alor hau.

Etorkizuneko egitasmo baten moduan ulertua, auzolanaren hedapenak aldi berean esan nahi du ekoizpen-bitartekoen kolektibizazioa bizitzako esparru guztietara zabaltzea, lana modu askean eta kolektiboki egiteko aurrebaldintza delarik. Euskal kooperatibismoa, industria-alorra bereziki, atal honen barruan izan behar du aztertua bere autogestio-izaera dela-eta. Azkenik, lana bera ulertzeko modua eta laneko etika bat dago oinarrian. Euskaldunak langile onak dira, lana delarik bere egituraketa sozialaren ezaugarri nagusia jai herrikoi, auzo-giro, familia, hizkuntzarekiko atxikimendua eta norberak osaturiko giza kalitatearekin batera. Hori guztia, gaur egun galbidean delarik, aztertu eta birmoldatu beharra dago. Azpimarratu beharra dago akulturazioa ez dela ematen soilik ideien munduan, baizik eta gure bizitzeko moduan batez ere, eguneroko bizitzan alegia. Bere izatea aldatzen duena botereak emandako irizpideen arabera, statu quo onartuz, eta bidenabar bere antzinako giza komunitateko bizimoduari uko eginez, horixe da gizakiaren akulturazioa. Hori dela-eta, aitzinako bizimodura itzultzea bezala ulertu behar litzateke bir-kulturazioa, baina etorkizunean, eta horrek esan nahi du onartzea garai zaharretara itzuli eta garai zaharretako bizimodua egiterik izango ez dugunaren paradoxa, gauzak era berdinean errepikatzea ezinezkoa baita izate ororen iragankortasuna dela-eta. Horren ondorio nagusia zera da, auzolanari buruzko meta-analisi bat behar dugula.

Horretarako Bonifacio Echegarayk idatzi eta 1933an argitara emandako “La vecindad. Relaciones que engendra el País Vasco” liburua lagungarri dakiguke.

Lau. Kultura. Bere berreskuratzeak printzipio eta balioak gaurkotzea eskatzen du, honetarako sormena behar delarik. Bere osotasunean hartuta, giza izateari buruzko bizi-jakintzen batura litzateke kultura. Eskolatuena baino garrantzitsuagoa da herri jakintza eta hauxe da sustatu beharrekoa, eskarmentuaren ondorio baita eta ez gehienbat doktrinarioa den jakintza akademikoaren ondorio. Horregatik dut gustuko Gotzon Garateren “30.466 atsotitzak” liburuan begiratzea, betiere jarrera kritiko batekin. Adibidez, hausnarketa honetako lehen puntuarekin lotua dago gaztelerazko esaldi hau: “militares, policías y soldados, pocos buenos, muchos malvados”; Estaturik gabeko Euskal Herri bat eraikitzea, herri batzarrearekin eta berauek sorturiko herri gaindiko autogobernu-erakundeekin, poliziarik eta militarrik gabe, herritarren defentsa herritarren esku utzita, garai bateko udal-miliziak eredu hartuta. Gogoratu behar dugu aipaturiko esaldia ez dela soilik espainiar eta frantziar uniformatuz ari, gutzietan buruz baizik, baita balizko Euskal Estatu horretakoez ere. Eskarmentuaren bidez ikasitakoa oinarritzat hartzen duen herri jakintza, gezurra oinarri duen egoera honi kontrajarria dago. Ez dugu Platonek esana ahaztu behar, Estatu orok iruzurra eta faltsifikazioaren beharra duela eta berauetaz baliatzen dela alegia. Gauzak horrela, gizarte autogestionatua izango da egia mugatuan oinarrituriko gizarte bakarra. Aipaturiko esamoldea Thomas Jefferson-ek aldarrikatu ohi zuena da bere edukian, labur eta zehatzago esanda.

Bost. Ideia gorena da askatasuna. Nola ulertzen dute euskaldunek gogoeta eta bizi-esperientziaren ikuspuntutik begiratuta? posible da berau aztertzea, zaila den arren. Euskal gizartearen bere orainean eta iraganean aztertu behar dugu jakiteko nola ulertu eta gauzatzen duten askatasuna euskaldunek. Askatasun politikoa azaltzea eta arrazoitzea erraza da lehen irakurburuan ikusi dugunez. Zailagoa da, aldiz, herri askatasuna aztertzea, hots, egunerokoan ematen dena. Berdin gertatzen da kontzientzia-askatasunaren arloan. Askatasun pertsonalaren arloan are eta zailagoa oraindik. Askatasun pertsonala erabakigarria da eta bere zehaztapenak askotarikoak dira: ardura, mugak, bestearekiko eta ez bestearen aurka eta abar. Baina badugu baikor izaterik. Ez dugu Euskal Herria eta askatasunari buruz tratatu bat idatzi beharrik, nahikoa da gaia programatikoki erabiltzea ahalbideratuko duten zenbait ideia arrunt eta xume atzematea. Edozein modutakoa delarik ere, helburu erabakigarria izan behar du askatasuna. Bere gabezia zela-eta hirugarren munduko “independentismoan”, berorregandik aldentzera eramaten ninduen. Arazo honetaz arduratzen da nire “La democracia y el triunfo del Estado” liburua, baina ez behar adina, dirudienez, kontu honetan oraindik asko baitago egiteko.

Sei. Zuzenbidea. Gizarte aske batean lege-araua gutxienezkoa eta herritarrena izan behar du, eta ez lege-gizonena, batzarrea modu berean aginte legegilea eta aginte juridikoa izango delarik, asanblada legegile baten erara. Garai bateko ohiturazko zuzenbidea gure garaira birmoldatzeak ondo hausnartutako azterketa bat eskatzen du: herriak burujabetza baldin badu, Zuzenbidea herritarren esku behar du eta ez inork aukeratu gabeko Estatu-indarren esku.

Zazpi. Jaia. Lana eta jaia, biak dira bizitzaren parte: edozein gizartek jaia eta gozamina behar du eta atzora arte euskalduntasunaren ezaugarri esanguratsua izan da ospakizuna eta jaia. Gaur egun galtzen ari da gazteen artean, modernitateak goibel eta aspergarri egin baitu gizakia, momentu oroz nekatua, urduria, tratagaitza eta etsitua. Funtsezkoa da herri jaiei buruzko gogoeta egitea eta hortik ateratako ondorioekin egoera eraldatzea, ezinbestekoa baita hau gazteria geureganatzeko. Gai honetan ez da akulturazio-prozesua gainditu, ezta gutxiagorik ere, azken arrazoien inguruko azterketa bat egitea ahalbidetzen duelarik, daukaguna gordetzeko eta galdutakoa berreskuratzeke historiak irakatsirikoa bilduz. Elgoibarko Aubixa auzoan bazen gizon bat bailarako txisteak eta bertako ateraldiak jasotzen

zituen liburu bat idatzi zuena, euskaraz jakina; berarekin solas egin nuen eta berriz elkar ikustekotan geratu ginen. Horrelakoak gehiago izango dira eta aurkitzen saiatu behar dugu.

Zortzi. Emakumearen egoera Euskal Herrian, eskarmentuaren eta egiaren ikuspuntutik eta ez instituzioen teoriari (Espainiako berdintasun Ministerioak eta bere erakunde kolonialek finantzatuta ia beti) kasu eginda, berebiziko garrantzia du iraganean izan zen eta gaur denaren azterketa bezala, eta batez ere etorkizunerako proposamen-moduan. Kontu erabakigarria da hainbat arrazoiengatik. Hortxe dugu M. Carmen Basterretxearen lana, eta bide horretan aurrera egin behar dugu gai honen inguruko egitasmo integral bat prestatzeko.

Bederatzi. Demografia. Benetan kezagarria da demografia egoera, batez ere EAE-en. Jaiotze tasa baxua dela eta, Euskal Herria desagertze arriskuan aurkitzen da eta sekulako konplexutasuna du afera honek. Arazo honentzako konponbidea ez da immigrazioa, inolaz ere. Alemania, EB-ko lehen botere inperiala, anti-europa bat sortzen ari da gizarte guztiz otzan eta kulturgabe bat eratzearen bitartez, eta horretarako ezinbestekoa du ordezkapen etnikoa, hau da, arraza garbiketa. Konponbidearen parte bat, lehen esan dugun modura, aitzinako ume-hazketa moduak berreskuratzea litzateke, XXI. mendera egokituz, non umeen zainketa komunitatearen esku legokeen. Baina badugu gehiago egiteko ere: europar botereen eta bere morroien eskutik maitasun, erotismo eta sexu heterosexualak bizi duten errepresio bortitzari aurre egin behar diogu. Zeren eta ezinezkoa izango baita demografiari buelta ematea aldi berean askea, arduratsua, pasiozkoa eta autodeterminatua izango den ugalketarako sexurik gabe. Honen harira, Félix María de Samaniego euskaldun apartaren “El jardín de Venus” liburuak ekarri behar dugu gogora, zeinak barre eginarazten digun bezala, berotu ere egiten gaituen. Ziurra dena zera da, Euskal Herriak emakume bakoitzeko hiru ume behar dituela baldin eta biziraun nahi badu.

Hamar. Belaunaldien arteko gatazka. Amets globalizatzailea mundu guztiko gazteei zuzendua dago, bere huskeria lotsagarriak eskaintzen dizkielarik: ingelesaz egin, teknologia gurtu, sustraiak ahaztu, Estatu-erakundeekiko fedea, sukaldaritza azkarra, etorkizuna zoragarria izango da, boterean sinesten badugu, etika eta balioak modatik paseak dira, kultura ez dugu geuk sortu beharrik baizik eta kanpotik emango digute eta guk erosi egingo dugu, subjektua ondorioa da eta ez kausa, iragana gaizkia da eta oraina ongia, eta abar. zeinak 30 urtetik berakoei eragiten dien batez ere, akulturazio-prozesu oso eraginkorrak sortuz. Hauxe bera gertatzen da Euskal Herrian, agian indar gutxiagorekin, eragin handia duelarik oinarritzko jarduera prepolitiko eta politikoetan. Nazio eta herri kontzientzia galtzearen prozesua iraultzeko ezinbestekoa da gazteriaren gaia jorratzea. Honi lotuta ageri da hezkuntzaren auzia, ikasle eta unibertsitate-sistema alegia, esanezinezko asmoetan eta pedagogia gaizto batean sostengatzen delarik mundu osoan. Hil ala bizikoa da gazteriarengana iristea, batez ere egun dinamikoena den sektorearengana, emakumeena. Europar ordenak eskaintzen dion egiazko etorkizuna, hots, iluna eta beldurgarria, azaleratu behar diogu gazteriari argudio sendoak erabiliz horretarako.

Hamaika. Teknologia pentsatu. Botere antolatuak zenbait helburu lortzen ditu berrikuntza teknologikoekiko mundu mailako gurtza arrazoigabearen bitartez. Besteren artean, iraganaren gaitzespen inplizitua dugu, teknologia-gabea izate hutsagatik mespretxuz eta tristuraz ikusia, sustraien eta jatorriaren galtze horretan sakontzen delarik era berean. Teknologia garrantzi handia izan du Euskal Herriko gizartean azken mende hauetan, eta badu oraindik ere. Arlo hau metodologia zorrotz batekin aztertzea behartzen gaitu horrek zehaztu ahal izateko teknikak ze toki izan duen euskal iraultzan. Mariana Mazzucato-en “Estatu ekintzailea” liburuak makilkada galanta izan da egungo teknologia zale itsuen pentsaerentzako, non informatikaren azken aurrerapenak, iPhone eta Steve Jobsen eskutik, AEBen beharizan militarren ondorio direla esaten den eta ez teknologia ekoizpenaren zerbitzura jartzearen ondorio, eta are gutxiago

“hiritarren zerbitzura”. Honen tankerako azterlan gehiago ere badira. Hau ez dugu ikusi behar teknologiaren besterik gabeko gaitzespen modura, bestalde ezinezkoa eta arbuigarria, baizik eta hausnarketa zentzuzko baten gisara, aztertuz zer den berarengan arbuigarri eta zer ez, aldaketekin edo gabe, eta nola beharko lukeen gizarte aske bateko teknologiak. Madrilgo gobernuan kokatua dagoen ezkerak, Gasteizko jaurlaritzaren laguntzaz, euskal industria desegin zuen, Alemania ekoizpenaren jaun eta jabe eta Europako indar nagusi bezala geratzearren, egun den modura, “Alemaniar boterearen paradoxa” izeneko Hans Kundnani-ren liburuan esaten den bezala. Egoera honek berrazterketa bat eskatzen du.

Hamabi. Egun hiriguneen baitako izateko era hiritarrean bilakatu da euskal gizarte, iraganean gizarte guztiz nekazaria izan zen arren (onartua dago Bizkaian ez zela herririk izan XIV. mendera arte, eta horrexegatik elizatearen sistema). Honi jarraiki, egilekide naizen “Bienaventurada la maleza porque ella te salvarà la cabeza” liburuan azaltzen dut mundu-hirien mundu-mailako sistemak ezin duela luzaroan iraun, hain zuzen ere, ematen den endekapenagatik nekazaritzan, lurren agortzean, ur edangarriaren urritzean eta baita aldaketa klimatikoan ere. Horrexegatik izan behar dute zorrotzasunez begiratuak “Euskal Hiria” moduko testuak, hots, Euskal Gobernuak 2002an argitara emaniko artikuluko sailkapen bat Alfonso Vergararen zuzendaritzapean. Iraultza eta berreraikitze nazionalaren aldeko proiektu gisa aurkezten dira, modu horretan, biztanleria euskal lurraldean arrazionalki banatuko duen estrategia, eta aldi berean bizikidetzaren aurkakoak eta, epe luzean, sostengaezinak. Egia esateko, Euskal Herriaren ukapena da Euskal Hiria, bai modu literalean eta bai beste era askotan ere. Horretaz gain, beharrezkoa da ikertzea ea euskararen baitako mundu-ikuspegiak baduen gaitasunik egokitzeko XXI. mendeko bizimodu hiritarrera.

Hamahiru. Historia. Momentuko helburu zein ideia politikoez kutsatu gabe, iraganari buruzko egia ezartzea eduki behar du helburu idatziriko historiak, hots, historiografiak. Aurre-politikoak izan behar du historia oro, soilik egiazkoa, gutxienez hori posible den artean nahiz eta batzuetan ezin den. Nire ustetan, honakoak lirateke Euskal Herriarentzat erabakigarriak izan diren mugarri historikoak: 1) monakotza (mugimendu zenobita) kristau eta iraultzailea, zeina horren erakusle ikusgarriena den Arabako harkaitzetako aztarnak, lehen aipatua; 2) al-Andaluseko inperialismo musulmanaren aurka herri euskaldunak buruturiko borroka sutua X. mendean, bereziki Almanzorren kanpaina militarretan (977-1002) buruturiko sarraskien garaian, non sortzen edo egonkortzen doazen gerora Nafarroa, Baskongadak edo Gaztelako estatu-erakundeak eratuko dituzten jaun feudalen elite armatuak, hein batean prozesu ulergarria delarik, euskaldunak euren biziraupenagatik ari baitziren borrokan eta horrek gerlari profesionalen garapena mesedetu zuen, gerora faktore erabakigarria izango zelarik Santxo III. erregetzarako, zeina printzea izan zen 1004. urtean, hain justu Almanzorren heriotza eta bi urteren ondoren; primeran legoke batzarrearen historia bat egin ahal izatea, aldi berean eruditu, zehatz eta osoa, garrantzi handiko ikerkuntza bat izan beharko litzatekeelarik bertan sartuz X. mendeko lehen iturri dokumentatuetatik gaur egundainoko informazioerik esanguratsuenak; 4) Euskal Herriaren historia idatzia 1970. urtetik, hots, Burgoseko epaiketen aurkako mobilizazioetatik hasita 2011. urteraino, non auzolanaren proiektua sortzen den; 5) Egiteke dagoen hiru herrialde baskongadoen erakunde politiko eta juridikoen ikerkuntza sakona, betiere etorkizunean erabilera bat izateko asmoz; 6) Iraultza Frantsesaren eraginak Iparraldean (Lapurdi, Nafarroa Behera et Zuberoa) edo, beste hitzetan esanda, euskaldunen aurkako genozidioaren historia, zeinarentzako baliagarria izan daitekeen Jose Mari Esparazaren honako liburua: “¡Abajo las quintas! La oposición histórica de Navarra al ejército español”. Badira makina bat gai garrantzitsu ikertzeko ere, baina horiek dira, ene ustetan, beharrezkoenak.

Hamalau. Baserria. Nekazaritza eta abere-ustiapenerako gune bat baino askoz gehiago da baserria, izan ere, euskaldunen gune sozial, kultural, estetiko eta sentimentalik nagusia

baita. Egun desagertze-bidean dago baserria, gazte-jendeak uko egin baitio bertako bizimodua jarraitzeari eta jubilatuen esku aurkitzen dira ekoizpen-lanetan dirauten apur horiek. Hala, belaunaldien arteko jarraipenik gabe aurkitzen da baserria. Bestetik, Euskal Gobernuak zergaz eta zentzurik gabeko arauz itotzen dituzte baserritarrak biztanleriak zer egin ez dakien bitartean nahiz eta sentipenez horien aldeko izan, egun kontu askorekin gertatu ohi den moduan. Afera mahai gainean ipintzen hasi beharko genuke, onartuz inork ez duela konponbiderik, baina aldi berean konfiantza ezarriek ekimenaren indar mobilizatzailean eta jendearen sorkuntzak bideraturiko ekarpenetan. Jakina, herrikoiak izan behar dute ekarpen horiek, eta ez instituzionalak. Berebizikoa da hori argi izatea, izan ere, beti azaltzen baitira gainontzekoak limurtu ohi dituzten banako eta kolektiboak aginduz auskalo zein legek konponduko duela arazoa, izan Gasteiz, Madrid edo Bruselakoa, jakin badakigunean hori gauza faltsua dela, proiektu globalizatzaile/mundializatzailearen baitako euskaldunon akulturazio-programaren parte baita baserriaren suntsiketa. Existitzen bada konponbidea, herrikoia izan beharko du nahitaez. Garbi esanda, ez dago konponbide instituzional estatalik ezertarako, eta oraindik egiteke dagoen eztabaida da ea Euskal Herriaren etorkizuna noren esku dagoen: erakunde estatal eta alderdi politikoen edo herritarren esku. 1979an zenbaitek zioten Estatuaren legalitateaz baliatu egin behar zela Euskal Autonomiaren Estatutua eskutan zutelarik, eta orain horrek galdearazten gaitu: zer lortu dute horrekin? Bada, erraza da erantzuna: ez dute ezer onik lortu, eta aldi berean kalte larriak eragin dituzte benetan garrantzizkoak diren kontuetan, hala nola, jendeak bere biziarekiko izan beharko lukeen erantzukizun eta konpromisoan. Izan ere, herritarrak bultzatuak badira euren gauzak politikari profesional eta erakundeen (espainiarrak, ez ahaztu, bai municipalak eta bai autonomikoak) esku uztera, finean manipulatuak dira ez daitezen kargutu euren arazoez, subjektu pasibo gisa endekatu daitezen, masa edo artalde batean bilakarazteraino lehen herritar zirenean. Nekazaritza eta elikagaien hornikuntzaren aferaren parte da, bestetik, baserria, baita ingurugiroaren arazoaren parte.

Hamabost. Balioak, printzipioak, etika eta axiologia. Zein da, bada, Euskal Herriaren egungo idiosinkrasia, bere izateko era bereizi eta propioa? Kontu zaila eta labainkorra da honakoa, hain zuzen ere, herrien izaerari buruzko ikerketa bat delako, eta horrek zenbait arbitrariotasun eta manipulazio eragin ditzake. Gune egonkor batera igaroz, ordea, onartzekoa da euskalduntasunak erregimen axiologiko propio baten beharra duela, hots, printzipio eta balioen ordena dinamiko batena zeinak banakoa eta gizartea gidatuko luketen egunerokotasunean, eta guzti hori hiru iturri nagusitik irten behar du: herri esperientzian adierazten den euskal mundu-ikuspegi etikoaren analisitik, egungo baldintzen ikerkuntza ateoriko eta esperientziakotik, bai eta horiek behar duten erantzun moral eta prozesu horren hoberenaren txertaketatik gizadian. Ahalegin iraultzaile oro ezinezkoa izango da axiologia bera eta iraultza axiologiko-moralaren beharrekiko desinteresak jarraitzen badu, izan ere, egoera horrek komunitate herrikoiaren energia etikoaren hedapena galarazten du. Murrizki pentsatu ohi denean, alegia, soilik ikuspegi politiko eta ekonomiko batetik, herri kulturaren berreraikuntza blokeatu egiten da moralaren alderditik, zeina oinarri den existentziaren momentu erabakigarrienak (jaiotzetik heriotzeraino) aurpegiratzeko ezinbesteko diren arau, kategoria eta irizpideen finkapenean. Elkartasun eta bizikidetzan hertsaturiko bizimodu aberasgarri batez ezaugarritu dira euskaldunak, eta hori gauza zentzuzkoa da, zeren eta batzarrea, komunala eta auzolana moduko antzinako erakundeen kausa eta ondorio baita. Zoritxarrez, baina, desagertzen ari da patrimonio moral hori. Askapen Nazionalaren erdigunea behar luke bere berreskurapen eguneratua, eta horrek estrategia propio bat eskatzen du. Presazkoa da euskal gizartearen aurrean balio gorenak zehaztuz joatea, hala nola, egia, maitasuna, askatasuna, banakoaren autonomia, ontasun morala, edertasuna eta bertutea. Gai erabakigarri hauetaz arduratzen da “Etica y revolución integral. Reflexiones para una sociedad convivencial” liburua, zeina bere egilekide naizen beste hiru lagunekin batera, Heleno Sañaren prologoa duelarik.

Hamasei. Banakoa, pertsona. Subjektua hasiera-puntua eta helmuga izan behar du, aldi berean, modu egokian egituraturiko gizarte batean. Ondorio onartezinetara darama soilik gizarte, herri edo nazioaren irizpideetan pentsatzeak aldi berean banako, subjektu edo pertsonaren terminoetan pentsatu gabe. Estatuaren arrazoia da axola duen gauza bakarra izaera estataleko talde sozialetan. Estataki antolaturiko talde super pribilegiatuak prest dira banakoa sakrifikatzeko helburu dutelarik agindu eta menperatzea, hau da, boterea pilotzea. Bestetik, lanerako indar hutsa da banakoa enpresarien klaseetako taldeetan, giza aurpegia duen ganadua finean. Hori dela-eta izan ohi dute izaera gizagabea bai batzuek eta bai bestiek. Horren aurrean, lehentasunezko xedera goratzen da pertsonaren kalitatea, bere kasa eraikiriko baliotasuna edo bere bertute pertsonala. Azken batean, indibidua da bere eraikuntza propioaren erantzulea, eta hori betebeharra da eskubide baino, zeren eta zinezko askatasun indibidualaren fundamentua da eginkizun hori. Euskal Herria nabarmendu egin da bertoko pertsonen kalitate altuagatik, horien ausardi deigarriagatik, baita euren izatasuna eta autonomia indartsuagatik ere. Pertsonalitate herrikoi indartsuz osaturiko gizarte bat izan zen, aldi berean bakoitzaren banakortasuna eta guztien batasuna elkarbanatuz ongitasun orokorraren alde. Izateko modu hori mesedetzen zuten batzarrea, komunala, auzolana edo baserriaren moduko erakundeek. Aldiz, nahasia da egoera egun, eta okerrera doala dirudi gainera, eta horrexegatik da beharrezko euskalduna eta bere izatearen eraikuntzaren inguruko hausnarketa bat, iraganeko hoberena berreskuratu dezan egungo baldintzetara eguneratuz.

Hamazazpi. Euskara. Mende luzeetan zehar herriko hizkuntza izana da bere bereizitasunaren arrazoi nagusia. Elizaren salbuespenarekin, zeinak euskara erabili zuen bere ekintza pastoralera legezatzeko, gainontzeko botere-guneetatik at jende arruntak erabilia, mantendua eta garatua izan den ondare herrikoi bat dugu euskara. Berebiziko aldaketa bat sartzen du 1979ko estatutu baskongadoak euskara "Euskadiko hizkuntza ofizial" bihurtaraziz art. 6.1ean. Beste hitzetan, espainiar Estatuak teorikoki berak bultzatu eta babesturiko hizkuntza batean bilakarazten du euskara... horrek honakoa esan nahi duelarik: otsoa artaldearen zaindari eta ongile bihurtzea. Izugarriko konkista baten moduan izan zen ulertua berrikuntza hori zenbait nazionalista eta independentistarentzat, horrek euskararen jarraikortasuna bermatuko zuelakoan-edo, baina hori behar bezala aztertu beharko litzateke, hots, kontu handia eta espirtu kritikorekin. Argia dena zera da: euskararen egoera ez da, 38 urte ondoren, inondik inora ona, eta bere etorkizuna urrun dago bermatua izatetik baita epe hurbilean ere. Bere erakunde guztiak barne, espainiar Estatuak beti izan da euskararen etsaia, eta beti izango da, hain zuzen ere Europar Batasunaren modu berean. Beraz, euskara galbidera eramateko estrategia bezala uler dezakegu hizkuntza koofizialaren izaeraz Estatu-erakundearen barnean integratzearen asmo hori. Frankismoak errepresio zuzenaren bitartezko politika batez planteatu zuen helburu hori, beraz ezezagun bilakarazteko asmoz. 1978ko erregimen parlamentari espainiarrak eta Europar Batasunak, aldiz, zeharkako izaera duen estrategia bat ari dira erabiltzen, zeina bere funtsa den hizkuntza instituzionalizatzea, hezkuntza-sisteman barneratzea eta koofizial egitea, guztiek ezagutu dezaten, jakina, baina aldi berean inork erabili ez dezan bere kabuz era "natural" batean desagertzera heldu arte. Izan ere, euskara instituzionalizatzearekin lortu nahi dena da euskal herritarrak ez sentitzea bere hizkuntzaren arduradun, eta modu horretan uzten da "adituen" esku honen biziraupen eta jarraipena. Are gehiago, Estatu/herri antagonismoa beti existituko denez (nahiz eta, garaia araberan, aurkakotasun eta gatazka-gradu ezberdinetan izan), askorentzat arrotz bilakarazi daiteke euskara, bere pertzepzioa hizkuntza ofizial/instituzional moduan bada, eta are gehiago egungo baldintzetan. Argi dago Estatu edo administrazio-hizkuntza bilakarazten ari dela garai batean herrikoia zena. Eta guzti horri globalizazioa gehitu behar zaio, EB eta bere ingelesaren nagusitasunarekin, zeina geroz eta inposatuagoa izaten ari den konpainia multinazional handien partetik euren langileengan baita aisialdi-industria eta komunikabide-sistema globalen

bitartez ere. Egungo baldintzetan, asko jota toleraturiko hizkuntzen estatutua lor dezakete hizkuntza guztiek, antolaturiko botereen erretasuna eta oldarkortasuna handitzen doalarik, betiere ingelesa berria (azpi-hizkuntza) salbu. Ondorioz, euskararen aferak hausnarketa bat behar du gaurko egoeratik etorkizunera begira, eta ez 1975ean pairatzen zuen egoeratik, hau da, frankismoaren amaieratik. 42 urte igaro dira ordutik, ia mende-erdi, eta ez du inolako mesederik egiten egungo errealtatea saihestea jada iraungi den antifrankismoan jarraitzeko. Euskara zabalkunde eta aurrerapen-fase batean sartu dadin, nahitaezko aurrebaldintza da iraultza, hots, iraultza integrala, hain zuzen ere bagauden iraultzak bere desagerpenetik libratu zuen moduan, hori izan baizen garai haietan iberiar penintsulan ziren hamarnaka hizkuntzen patua. Hala, bere biziraupenak zer ikusi handiagoa du euskal kultura eta bizimoduaren berreskurapenarekin, akulturazio prozesu ikaragarri hau irauliz, bere existentzia instituzionalarekin baino. Erakundekeriarekin amets egiten duten horientzako azken oharpen gisa: beti usteldu eta endekatuko da Estatu edo estatu-aparatuaren zati bilakatzen den gauza herrikoi oro, finean desnaturalizatu eta, aldi baten ondoren, hondamendian sartuko delarik. Zeren eta herria eta Estatu gauza antagonikoak dira.

Hemezortzi. Euskal Herria nagusiki gizarte industrial bat izan da urte edo, zehazki esanda, mende askotan zehar Alemaniak bere mesedetan bultzaturiko desindustrializazioa baino lehen, zeina egun jasaten ari garen honakoan bihurtu gaituelarik: zerbitzuak ekoizpen-sistemaren oinarri nagusi dituen gizartea. Langile-klase handi eta ekintzailea izan zuen Euskal Herriak, hasieran Bizkaian eta Gipuzkoan, gerora Araban eta Nafarroan. “Laugarren iraultza industrialaz” mintzo diren garaiotan, non liburuak idazten diren izenburu horrekin (Klaus Schwab-ena adibidez, Ana Patricia Botinen hitzaurre deigarriarekin), nahitaezkoa da hausnarketa bat berreskuratzea euskal langile-klasea, bere orainaldia eta bere etorkizunaren inguruan. Jada ez da lekurik garai bateko mesianismo proletalگو zale arrakero eta zaharkituarentzako, baina bada tokia, aldiz, honako auzia mahairatzeko: datorren iraultza holistiko horren baitan langile-klaseak izango duen zinezko funtzioa. Horrekin guztiarekin, zertaz eztabaidatuko litzateke? Honako gai hauek izan litezke: 1) Garaiko lehentasunezko gaiei buruzko jakinduria herrikoia garatu, horietako zenbait aurrerago aipatu direlarik. Ez litzateke albo batera utzi behar jende arruntaren eguneroko jakintzari buruzko ikerketa zehatz eta eruditu bat, jakina, XXI. mendeko baldintzetara egokiturikoa; 2) taldeen sorkuntza bultzatzea inork erantzun edo konponbide osorik aurkitu ez dien gai konplexu horien inguruan hausnartu eta ikertzeko, izan ere, denok dugu zer bait esateko kontu horiei buruz eta nahitaezkoa da eztabaida plazaratzea; 3) gure garaiko lehentasunezko afera horietan edo horietako zenbaitetan interesa duten pertsona eta kolektiboak elkartzen joatea, ehunduz joate-aldera gizartea orokorki dinamiza dezakeen harreman-sare bat; 4) bide ezberdinen bitartez iritzi publikora zabaldu aipaturiko arazo horien inguruan ikertu eta garaturikoa, burutu dadin dagokion azterketa kolektiboa, eztabaida eta konponbideen bilaketa.

Egitekoak eta jarduerak

Egungo baldintzetan, manifestu bat litzateke ekimenik egokiena garaiko testuinguruaren analisisa garatu dadin proiektu eta programa bat eskainiz, besteak beste, euskal kultura, autogobernu eta mundu-ikuspegiaren berreskurapenerako. Ardatz zibiletik jorratuz, aldi berean politiko (ez instituzional) eta aurre-politiko, inolako ideologia zehatzik gabe jakinduria herrikoitik harago, eta, horretaz gain, ekintza-bideak formulatuz bertan, betiere egian, zentzu estrategikoan eta argitasunean oinarrituz, dotoretasuna eta laburtasunez idatziz. Pertsona eta kolektibo-kopuru nabarmen baten babesa eduki beharko luke. Oso garrantzitsua da bere prestakuntza-fasea. Bere edukia honakoan laburtu daiteke: Euskal Herriak beregandik eta beretzako eginiko adierazpena, iragana, orainaldia eta etorkizunaren batasuna duelarik xede. Guzti horren helburu praktikoa konstituzio baten eraketa litzateke, hain zuzen ere, mugimendu

herrikoi eta plural batena, ez, ordea, instituzional, alderdikoi, edo doktrinala, bere egitekoa litzatekeelarik euskaldunon askapen-ekintza eta kontzientziaren atal berri bati hasiera ematea, XXI. mendeko baldintzetan, aniztasunetik eta ekimen zein sorkuntza herrikoian funtsatuz.

Manifestuaren prestakuntzarako eginbeharrak aipatzera igaroko naiz orain. Epe luzekoa behar luke atal hau, urte batekoa adibidez. Denbora hori igarota, orduan argitaratuko litzateke.

Oinarrizko ideia ezagutaraztea behar luke lehen pausua, hau da, euskaldunon mundu-ikuspegi, erakunde tradizional, hizkuntza, historia, axiologia eta idiosinkrasiatik izan dezaketela konponbidea Euskal Herriak egun pairatzen dituen arazo eta aferek, betiere egungo baldintzetara sortzaileki egokitzen badira. Beste modu batera esanda, globalizazioaren garai honetan Euskal Herriak nozitzen duen dominazioari aurre egitea da kontua, baina gure izate zehatzaren baieztapen eguneratu eta sortzaile batetik.

Horrekin batera, Manifestuaren zirriborro bat burutu beharko litzateke, eztabaidarako testu-moduan, naroki zabalduz. Baina are garrantzitsuagoa da oinarrizko sortze-idea hori argumentatzea. Lehenik eta behin, berau erakutsi eta euskal gizarteari azaltzea komeni da. Horretarako, estrategia bereizi batean pentsatu beharko da. Zirriborro hori idatzi, berau zabaldu eta eragindako iritziak jasoko lituzkeen lantalde bat eraiki beharko litzateke.

Beste egiteko bat: ahal den zukurik gehiena atera azken hamar urteetan euskal gizartearen inguruko gaiei buruz argitaraturiko liburuei, bai beste idazleenak baita nireak ere, zeinek argudio-sorta baliotsu eta egoki bat osatzen duten. Bloke batean bildu eta sintetizatu beharko lirateke modu egokian azalduz eta argudiatuz baita horiek gizarteratu ere, jendea animatuz irakurri eta iruzkintzera. Bestetik, egitasmo publikoak antolatu beharko lirateke Euskal Herriko herri handienetan, ahal bezain jende gehien erakartzeko asmoz pentsatu eta prestaturikoak beti ere, horietako bakoitzaren hasieran ongi pentsaturiko azalpen bat egingo litzatekeelarik ideia orokorraren inguruan, lehen aipatua, ez soilik bere zabalpenerako baizik eta pertsona eta talde ezberdinen atxikimendua bilatzeko proiektu estrategiko, iraultzaile eta herrikoi honetara. Badira zentzu bereko liburu gehiago argitaratzeke, eta, guzti honekin, gehiago ekoiztera akuilatu daiteke jendea.

Liburuen mundua, baina, zati soil bat da. Gazteriarengana iristeak, adibidez, bide berriak martxan jartzea eskatzen du, interneteko bideoen bitartez eta abar. Lehentasunezkoa da ikus-entzunezko proiektu handi bat sortzea zenbait kanalekin, bereziki gazteriari zuzendua (eta emakumezkoak lehen tokian, beraiek baitirelako sektore aktiboena gaur egun), Euskal Herriko errealitatea ezagutarazten joango litzatekeena eraldaketa-borondate batekin. Baina ez soilik internet, aldizkari bat egitean pentsatu beharko litzateke ere prozesuak aurrera egin ahala, paperezkoa zein digitala.

Bestetik, ikerkuntza-talde, tailer eta seminarioen eratzea berebizikoa da pertsonen formazioa ahalbideratzeko, eginbehar nahitaezkoa izanik. Horretaz gain, banakako konpromiso-maila bat beharko da ahalegin, irakurketa eta hausnarketa propioak burutzeko. Izan ere, Euskal Herria librea izango da baldin eta pertsona-kopuru nahikoa bada prest bere burua askapenaren zerbitzura jartzeko, modu desinteresatu batean, barne-usteak hala esaten diolako eta barnetik harturiko erabakia izan delako.

Arreta jarri behar zaio oraindik bizirik dirauten euskal adierazpen eta berezko erakundeei, bide guztien bitartez aurkeztuz batzarrea, komunala, baserria (etxe gisa ulertua) edo auzolana, jakina, bere testuinguru historiko zein politikoan kokatuz. Nabarralderi proposamen bat egin beharko genioke Zuzenbide Piriniarraren jardunaldietan Agurainen izan ginenok, hain zuzen

ere Nafarroako Komunalaren inguruko jardunaldi bat elkarrekin antolatzeko eta jatorrizko instituzio horren inguruko ezaugarri guztiak jorratzeko, ez soilik iragan moduan baizik eta etorkizunari begira ere.

Erdipurdikoak eta desitxuratuak dira, Amparo Zubirenaz gain, Nafarroako komunalari buruz ezagutzen ditudan ikerketak (harridura eragiten du ikusteak nola banatu ohi den komunala batzarretik, eta eruditu guztiek hori egiten duten arren, berau bideraezina da Felipe Esquierozek garaturiko “komunaltasunaren espirituaren” zentzua alboratzen dela-eta; auzolanaren praktika inkaminatuz, gainera, zikiratu egiten da jabetza kolektiboaren baitako funts anaikor eta humanista). Hala ere, modu zabal eta barneratzaile batetik burutu beharko lirateke ekitaldi hauek joera orotako hizlariak bilatuz. Ponentzia horiek argitaratu egingo lirateke, jakina, logikoa den bezala.

Euskal Herriaren historia herrikoia inguruko lantalde bat jarri beharko litzateke martxan gazteriarentzako bideo eta eduki ezberdinak sortu ditzan, nola ez, kanal zehatz batetik zabalduz. Honakoak izan daitezke, besteak beste, landu beharreko gaiak: 1) Bagauden ibilbideak Nafarroan zehar Tarazonaraino (Zaragoza), zeina primeran legokeen Marsellako Salvianoren aipamenekin hornituko balitz, gertaera horiek modurik hoberenean deskribatu eta epaitzen dituen historialaria denez gero; 2) Latxagak “Euskal Herriko Kapadozia” bezala izendatzen zuena, hots, Araban kokaturiko goi erdi aroko harkaitz-lan bilduma eremita; 3) Nafarroa edo Najera-Iruñeako erregeen panteoia Najeran (Errioxa), sekulako balio estetikoak duelako hezigarria izateaz gain, nahiz eta ez den historia herrikoia; 4) Sobrarbeko foruen ikerkuntzak horien aldeko Ainsako (Osk) monumentuaren bitartez; 5) Baserria, zeinaren inguruan jada badiren kalitatezko ikerketak liburu-forman, baina bere ezkutuko gaitzetan erreparatuz oraingoan eta ekarpen hausnartzaile bat burutuz bere biziraupen eta jarraipenaren inguruan; 6) Burdinola zaharrak, gerora irin-errota bihurtuak, baten bat badelarik funtzionamenduan oraindik ere helburu hezitzailearekin; 7) Lizarrako museoan edo Amezkoatan ezagutu dezakegun Karlismo herrikoia; 8) Partzuergo Nagusi gisa ezagutua izan den mendialdeko komunitatea, Araba eta Gipuzkoa artean kokaturikoa, zeina Asunción Urzainquiren bitartez izan zen berreskuratua, haritz eta pagoen goi-baso txundigarria delarik, ingurunearen ikuspuntutik balio handiko euskal komunalaren adierazpena izandakoa; 9) Napoleon I.aren aurka nafarrek antolaturiko gerrilla 1808 eta 1814 artean, John L. Tone-ren liburu ikusgarria gida bezala edukiz, herri oso baten heroismoak ahalbideraturiko epika berpiztuz eta gunerik esanguratsuenak iraganez; 10) Industrializazioa, Elgoibarko Makina-erremintaren Museoa eredu-moduan hartuz, baita Miguel Angel Barcenillaren “La pequeña Manchester. Origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano. Erretería (1845-1905)” liburua ere; 11) Artaitzeko San Martin eliza erromanikoa, zeina batzarrearen eta herriaren adierazpen erromaniko ikaragarria izan zen, XIII. mende bukaerakoa eta Tuestako (Araba) tenpluarekin baliokidea izanik, paregabea, gainera, bere kalitate estetikoagatik eta baita harrizko panfleto bat izanagatik Gaztelako errege Alfontso X.aren zoritzarreko politiken aurka; 12) Bilboko itsasadarraren desindustrializazio-ibilbidea, non alderatu daitezkeen, adibidez, 1965eko fabrika-sarea egungo basamortu industrialarekin, Galartako meategi-arroa zein Bilboko beste herriak bertan barneratuz; 13) 1970ko Burgosko epaiketa, hots, Frankoren erregimen faxistaren aurkako herri mugimenduaren adierazpena; 14) euskal jakinduria zahararen arabera jangarria den flora basatia, tokian tokiko lanean urte asko daramazkien Daniel Maria Pérez Altamira etno-botanikari gipuzkoarraren eskutik, 15) Euskal Herria X. mendean: Almantzorren aurkako garipen handia Simancasen. Euskal batzar-milizien argi eta ilunak; 16) Bizkaiaren lurralde-antolakuntza politiko-juridikoa bere autogobernuaren 3 mailekin, Goi Erdi Arotik gaur arte; 17) Euskal emakumek euren umeak komunki hazteko zituzten praktikak, M.C. Basterretxearen liburuaren bitartez; 18) Euskal sukalde-ohituen berreskurapena janari azkarraren inposizio- garaian, zeina ez den neo-hizkuntza globala baino hobegoa, horrek hausnarketa kultural bat eskatzen duelarik euskal sukaldaritzaren inguruan.

Aipaturiko dibulgazio-material guzti hori modu duinean ekoiztea litzateke helburua, bai bisualki eta bai estetikoki, testu zehatz eta egiazko batekin, betiere gazteriari zuzendurik.

Aipatu bezala, ikerkuntza eta hausnarketa bultzatu beharko dira betiere erro herrikoiko jende gaitu eta aditua biltzeko asmoz bi urtetarako epean. Horren helburuaz, aukera bat litzateke 8-12 orduko zuzeneko seminarioak osatzea aurretiko hiru hilabeteko kontsulta-epe batekin telefonoz, gutunez, emailaz edo skype bitartez. Egia erranda, produktu ideologiko akademikoak ez dira batere fidagarriak, hortaz besteak sortu beharko dira, alegia, sustrai eta kutsu herrikoizkoak.

Bide horretan, babesa eman beharko zaie euskalduntasunaren adierazpen gorenengoen inguruko ideiak, ikerkuntzak bai eta ikus-entzunezko edukiak sortu nahi dituzten horiei, are gehiago iraultza eta tradizioa bateratu nahi horren espiritutik egin badira.

Laburbilduz, honakoak lirateke aurrera eramane beharreko eginkizunak: 1) ideia orokorra, hots, gidaria sortu eta garatu; 2) argudio bereziak landu; 3) pertsonak formatu; 4) lantaldeak eraiki; 5) iritzi publikoari plazaratu landutako guztia; 6) gainontzekoek egindakotik baliagarria izan daitekeena bildu eta proposamenari erantsi; 7) Euskal Herri osora zabaltu Manifestua (behin betiko bertsioa), bere zabalkundea eta ezagutzan lan eginez, ekarpenak bilduz eta bateragarriak izan daitezkeen ekintza-eskaintzak onartuz, ekimen autonomo sortzailea bultzatuz, eskaera ezberdinei erantzunez eta beharreko eztabaidak aurrera eramanez.

Denbora batez guzti horren ondorio sozialak neurtu ondoren, Estrategia berri baten garapenari ekin beharko zaio.

26-11-2017

1: "Crisis y utopía en el siglo XXI" liburu txikian bilakatua izan zen ondoren horietako baten edukia, hain zuzen ere, Donostian garatua (23-3-2009).

2: Esan gabe doa honakoa adierazten duela horrek: Baskoniako iraultza bagauda dela guzti horren jatorria, nahiz eta hortik sorturiko eredu soziala gerora beste herrietara zabaltu zen. Nire ustetan, zera esan nahi du eredu hori Nafarroan azpiratuago egoteak: 1512 aurreko Estatu nafarrak gogorki erreprimitu zuen Behe Erdi Aroko herria, gerora Nafarroa eta Gaztelako koroen botere bateratuak berdina egin zuelarik ondorengo mendeetan. Jakina da batzarrearen aurka legezlatu zutela Nafarroako Gorteek XVIII. mende-bukaeran. Era berean, karlismoarekiko beldurrak eragindako ondorioa izan zen zurki ezarri izana Nafarroan XIX. mendean plazaratutako komunalaren pribatizazio-araudia, hortik datorrelarik bere ugaritasuna eta horrek baieztatzen duelarik nire tesia karlismoaren fenomenoaren inguruan... Nafarroa, zenbaitzuek aldarrikaturiko "Euskal Estatu" izatetik urrun, euskaldunon aurkako Estatu bat izan da. Eta hori horrela da herrikoia eta iraultzailea delako euskaldunaren esentzia, hots, 450 urte inguruko iraultza bagauda handiaren ondorioa, eta, aldiz, euskaldunaren idiosinkrasia eta izaeraren aurkakoa da Estatu, eta horrexegatik da bere gizarte zibila horren indartsua eta pertsonaren izaera horren kementsu eta propioa. Horren frogak litzateke nola berriki bilakatu den euskara Estatu-hizkuntza 1979ko Estatutu baskongadoa eta Nafarroako legeriarekin, guzti horrek kezka eragin beharko lukeelarik bidenabar.

3: liburu txundigarria da “Como hablar en español sin pensar en ingeles. Ensayo tragicómico”, Tandem kolektiboarena, Arabako Foru Aldundiak 1999an argitaratua. Izan ere, penintsulako gaztelar hiztunen akulturazio-fenomenoaren aurka ekiten du dotoreziaz, zorroztasun eta humore onez. Agian noizbait idatziko da liburu bat antzeko argudioekin baina euskara xede izanik... ez dira mundu-mailan gertatzen direnaren jabe globalizazioaren “neohizkuntzak” gainontzeko kultura eta mintzairantzat (ingelese bera barne) suposatzen duen arriskuaren aurrean asaldatzen ez direnak. Erresistentzia-adierazpen bat da aipaturiko liburua, baita globalizazio-prozesu honen, hau da, mundu-mailako makro-botereen aurkakotasun bat, zeinak inoiz ikusi gabeko izaera beldurgarria duen. Balio handia du bere “menderakuntza kulturala” kontzeptuak, bere helburua delarik salatzea planeta osoko miliaka milioika gizabanakoren gogo-azpiratzea ingeles-azpikultura endekatuarekiko.

4: Ingelesa bera ere badago arriskuan, ez delako, izan ere, berezko ingelesa inposatua izaten ari dena baizik eta bere bertsio endekatu bat, hots, hierarkizazio sozialaren baitako erroto bilakaturiko izaki klonikoentzako apropos eginiko “neohizkuntza” bat, eta ez, aldiz, benetako ingelesa, zeina bere testuinguru kultural eta axiologiko bereizian existitzen den (edo zen) soilik. Akulturazioak suntsitu egiten ditu hizkuntzak errealitatearen komunikazio, hautemate eta sorkuntzarako elementu-moduan, betiere giza bizitzak eskatzen duen konplexutasun-mailakoa badira, eta ez azpi-gizakiaren mailakoak. Edo, beste era batera esanda, ezin dezakete hizkuntzarik eduki egun eratuak izaten ari diren izaki hutsalek, soilik komunikazio-tresna baldar eta bakun bat. Honakoari entzungor egiteak esan nahi du Europar Batasunaren atzean dagoena objektiboki hautemateko ezgai izatea, hau da, inperialismo aleman garaikideak Europa osoa dominatu eta kolonia teutoi berri bat bilakatzeko borondatez eginiko proiektu bat dela, finean Hitler beraren helburuak bilatzen dituelarik beste bide batetik bada ere.

5: Pasarte bat aipatuko dut. Ezezagun bat agertu zitzaidan behin Galizian nire “O atraso político do nacionalismo autonomista galego” liburuaren aurkezpenaren ondoren, 2010ean, eta esan zidan liburu-proiektu bat garatzen ari zela eta azaldu nahi zidala. Eszeptikoki jarraitu nion hasiera batean, baina aulkitik jauzi egin nuen pozaz esan zidana entzundakoan. Berak esandakoagatik, “langile zale marxista eta sozialistek banakoaren ukazio gisa ulertu izan dute kolektibotasuna orain arte, zeina estatismo edo kapitalismo hutsa den hori. Eta ni, Galiziako ingurune galdu batean jaio eta hezi naizenetik, jakin badakit komunalismo tradizionalak errespetatu eta goratu egiten zuela banakotasuna eta subiranotasun pertsonala, berau ukatzen urrun. Horren ondorioz, guzti hori azalduko duen liburu bat idatzi nahiko nuke Galizia tradizionalaren izaera eta antolakuntzatik hasita, ekoizpenerako bitartekoen jabetza komunitarioan eta “concello aberto” delakoan finkatzen delarik”. Ez dago esan beharrik nola aipaturiko hori modu berdinean jazo zela Euskal Herrian, eta munduak dardara egingo duela lagun horrek liburu amaitu eta argitaratzen duenean, edo gutxienez nik gogo handiko saltoak egingo ditut liburu horren ausardia eta etorkizunerako izan dezakeen esanahiagatik. Ez dago konponbiderik gure garaioetako arazo handietarako pertsonaren askatasuna, autonomia eta subiranotasunarekiko errespetu gorenik gabe. Euskal giza kalitate-maila altuaren kausa da hori bere erregimen tradizional herrikoian, izan ere, gizaki hobeak sortzeko bidea baita erantzukizunarekin bat datorren askatasuna, batetik, eta betebeharrekin batera datozen eskubideak, bestetik.

6: Aditzera eman nahi dut nola duen honako azpi-titulua lehen aipaturiko liburuak, Egin Ayllurena alegia: “Etorkizunaz ugalduriko komunitate herrikoiaeren esperientzia historikoa”. Hori da: denaz, izan beharko lukeenaz eta izan nahi denaz gainezka, baina eguneratua eta garaiko mendera egokitua.

7: Garrantzi handia izan zuen monakotza kristau iraultzaileak bagauden iraultzan, zeinak eduki autoktono argia izan zuen euskaltasuna berresten zelarik Erroma eta mertzenario bisigodoen

aurka, baino izan zuen ere kanpoko eragin hori. Izan ere, kristautasuna Palestinan jaiotzen da mundu ikuspegi askatzaile eta iraultzaile herrikoi eta anti-inperialista moduan, non zabaldu egiten den hortik erromatar inperioaren gainontzeko lurraldeetan barna, eta modu horretan iristen da Baskoniara goiz baino lehen Iruña-Veleiako grafitoek adierazten duten moduan. Monakotzan berrasmatu zen Nizeako kontzilioan kleroak faltsutu zuena, Egipton sortzen delarik IV. mendean. Tristura eragiten du ikusteak nola gaur jada Euskal Herritik ez den arretarik ipintzen Latxagak 1976an Euskal Entziklopedia Handian deituriko "Arkaitzetako Bisigotiko Baselizak Araban" horri, nahiz eta izen horrek akats bat eduki, ez baitziren bisigodoak baizik eta hain justu aurkakoak: baskoi, herrikoi eta bisigodoen kontrakoak. Baina asmatu egiten du "Europako harri landu sortarik garrantzitsuena" gisa izendatzen duenean, V-VII mende aldeak kokatuak nire aburuz, nahiz eta guzti hori "izkutapen osoa erdestian" izan, egileak esanda. Etorkizunaren eraikuntzaren alderdi garrantzitsua izan behar du, beraz, Euskal Herriaren historiaren berreskuratzea betiere egian eta objektibotasunean oinarriturik. Eta ez nintzake zintzoa izango nire harridura eta tristura ezkutatuko banitu zinez independentista (kakatxik gabe) den euskotarrekin aritzen naizenean eta ikusten dudanean nola ez duten beste munduko kezkarik azaltzen euren historiaren, paisaiaren eta bertako jendearen ezagutzan, are gehiago, Londres edo New Yorkera bidaiatzeko interes handiagoa dutenean euren arbasoen etxalde edo baserrian baino. Guzti hori akulturazioaren adierazle da.

8: Zuhaitz bizkaitarra testuinguruan jarri eta penintsulako gainontzeko zuhaitzekin konektatzearren (batzarren errezel eta babesgune izan zirelarik eta direlarik oraindik ere), lagungarria izan daiteke Ignacio Abellaren "Árboles de Junta y Concejo. Las raíces de la Comunidad" liburua. Mendebaldea den Bizkaiak bere zuhaitza badu, badu ere XIV. mendean Euskal Herriko ekialdea zen Sobrarbe herriak ere, Oskako lurralde piriniar bat. Hortaz hitz egiten du Nabarralderekin dudak testuak: zuhaitzak, batzarreak eta euskara...

9: Soldatapeko lana ez-libre, erdi-esklabo eta neo-esklaboa ulertu, borrokatu eta ezabatzeko liburu nahitaezkoa da "Lana eta kapital monopolista. XX. mendeko lanaren endekapena", Harry Bravermanek idatzia.